

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**5895** *21/2020 Errege Lege Dekretua, ekainaren 9koa, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko prebentzio, geldiarazte eta koordinazioko premiazko neurriena.*

I

2020ko martxoaren 11n, Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemia izandatu zuen COVID-19aren agerraldi epidemikoak eragindako larrialdi-egoera, eta Ministroen Kontseiluak premiazko lehen neurriak hartu zituen martxoaren 12an, osteguna, ezohiko bilkura batean, pandemiaren hedapenari aurre egiteko; zehazki, 7/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 12koa, COVID-19aren eragin ekonomikoari aurre egiteko presako neurriak hartzen dituena.

Une horretatik aurrera, pandemiari eman beharreko erantzunaren artikulazio juridikoa bi konstituzio-tresnaren inguruan egituratu da: batetik, alarma-egoeraren deklarazioa eta haren arabera hartutako neurriak, eta, bestetik, ondoz ondo onartutako errege lege-dekretuak, zeinak pandemia eta hura geldiarazteko hartutako neurriak esparru sozioekonomikoan sortzen ari diren ondorio eta eragin kaltegarriak arintzera bideratu baitira nagusiki.

Ildo horretatik, gure ordenamendu konstituzionalak, gure inguruko beste herrialde batzuetan ez bezala, alarma-egoera deklaratzeari aurreikusten du, Espainiako Konstituzioaren 116. artikuluan, Alarma, Salbuespen eta Setio Egoerei buruzko ekainaren 1eko 4/1981 Lege Organikoan araututako egoera jakin batzuetarako. Lege organiko horrek Gobernuari ematen dion ahalmena baliatuz eta lege horren laugarren artikuluko b) apartatuan («osasun-krisiak, hala nola epidemiak eta kutsadura-egoera larriak») eta d) apartatuan («premia biziko produktuen hornidurarik gabeko egoerak») aurreikusitako egitatezko baldintzen arabera, Gobernuak martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onartu zuen, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duena.

Errege-dekretu horren hitzaurrearen arabera, xedapen honetako neurriak Gobernuak herritarren osasuna eta segurtasuna babesteko, gaixotasunaren aurrerakada geldiarazteko eta osasun publikoaren sistema indartzeko ekintza irmoaren barruan sartzen dira.

Arau horrek zirkulazio-askatasuna mugatzeko neurriak bildu zituen (zirkulazio-askatasuna, legeak xedatzen duen bezala, betekizun jakin batzuek baldintzatuta geratu zen), baina geldiarazpen-neurri ugari ere jaso zituen, hainbat eremutan, hala nola hezkuntzan eta prestakuntzan, merkataritza-jardueran, kultura-ekipamenduetan, jolas-establezimendu eta -jardueretan, ostalaritza- eta sukaldaritza-jardueretan, kultu-lekuetan eta zeremonia zibil eta erlijiosoetan.

Hala ere, Osasunaren Mundu Erakundeak nazioarteko pandemia gisa kalifikatu zuenetik eta ondotik, alarma-egoera deklaratu zenetik, oso bizkorra izan zen COVID-19ak eragindako osasun publikoko larrialdi-egoeraren bilakaera, bai estatuan, bai munduan.

Inoiz ez bezalako osasun-krisialdia da, eta oso zabala eta larria, bai kutsatzeko arrisku apartagatik eta kaltetutako herritarren kopuru handiagatik –horrek presio handia ekarri die osasun-zerbitzuei–, bai estatuek hartutako geldiarazpen- eta urruntze-neurri berezien ondoriozko kostu sozial eta ekonomiko handiagatik.

Bilakaera hori dela eta, neurri osagarriak hartu behar izan dira pandemiari aurre egiteko. Hala ere, ekainaren 1eko 4/1981 Lege Organikoaren seigarren artikulua ezartzen duenez, alarma-egoeraren iraupena eta ondoreak ezin izango dira hamabost egunetik gorakoak, eta Diputatuen Kongresuaren berariazko baimenarekin soilik luzatu ahal izango da egoera hori; kasu horretan, Diputatuen Kongresuak luzapenean indarrean egongo diren baldintzak eta irismena ezarri ahal izango ditu.

Horregatik, pandemiaren bilakaera azkar eta suntsizailerik ikusirik, osasun-larrialdi horren kudeaketa eraginkorra bermatzeko, gaixotasunaren hedapena geldiarazteko eta Osasun Sistema Nazionalaren erantzuna zaintzeko eta bermatzeko, Gobernuak sei aldiz ere eskatu dio baimena Diputatuen Kongresuari alarma-egoeraren eta bertan jasotako neurrien indarraldia luzatzeko.

Diputatuen Kongresuko Osoko Bilkurak, 2020ko martxoaren 25ean, apirilaren 9an, apirilaren 22an, maiatzaren 6an, maiatzaren 20an eta ekainaren 3an egindako bileretan, baimen horiek ematea erabaki zuen, alarma-egoeraren indarraldia hurrenez hurren 2020ko ekainaren 21eko 00:00 arte luzatzeko.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onartu zenetik, errege-dekretu hori eta berorren neurriak izan dira, bai eta alarma-egoeraren iraunaldia luzatzeko hurrengo errege-dekretuetan ezarritako neurriak ere, pandemiak eragindako larrialdiari aurre egiteko hartutako araudiaren oinarritzko esparru arautzailea.

Konstituzio Auzitegiak behin bakarrik izan zuen aukera alarma-egoeraren deklarazioari buruz aldez aurretik iritzia emateko, 2016ko apirilaren 28ko 83/2016 epaian, eta, hor adierazitakoaren arabera, «ulertu beharra dago araudi hori gure ordenamenduan lege-maila edo -balioa duen erabaki edo xedapen gisa egituratuta dagoela, eta, ondorioz, alarma-egoeran aplikatzen salbuets, eten edo alda ditzakeen lege eta arau parekagarrien arau-balio bera du, daukan edukiarengatik eta dakartzan ondorengatik», eta «alarma-egoera luzatzen duen dekretuaren mailari edo balioari buruzko konklusioa ezin da desberdina izan»; kasu honetan, gainera, «berezitasuna da luzapen-dekretua Diputatuen Kongresuak aldez aurretik emandako baimenaren *ad extra* formalizatzeko bat dela».

Alarma-egoeraren babespean neurri osagarriak hartzeko erabili izan den araudiaren oinarri juridikoa honako gaitza honetan datza: eskuordetutako agintari eskudun gisa izendatu diren ministroak xedapen horietan gaitu izana pertsona, ondasun eta lekuak bai orokorrean bai zenbait esparrutarako modu espezifikoan babeste aldera ohiko zein ezohiko zerbitzu guztiak bermatzeko beren jardun-eremuan beharrezkoak diren aginduak, ebazpenak, xedapenak eta interpretazio-jarraibideak emateko.

Jakina, beharrezkoak ziren eta hartu diren geldiarazpen-neurriek oso eragin ekonomiko eta sozial handia izan dute; izan ere, jarduera ekonomikoa eta soziala aldi baterako murriztea ekarri dute, mugikortasuna murriztuz eta jarduera hainbat eremutan geldituz, eta, horren ondorioz, errentak galdu dituzte langileek eta familiek, bai eta Espainiako ekonomiako enpresek eta sektoreek ere. Hori dela eta, hasiera-hasieratik, neurri ekonomiko eta sozialak hartu dira familia, langile eta kolektibo kalteberen babesa bermatzeko, ekoizpen- eta gizarte-ehunari eusteko eta osasun-krisiak eragindako kalte nabarmenak arintzeko. Horretarako, xedapen batzuk eman dira, zenbait errege lege-dekretutan artikulatuta, ondorio kaltegarri horietatik babesteko baliabide nazionalak mugiarazte aldera, kolektibo kalteberenei arreta berezia jarritz.

Nolanahi ere, «COVID-19a geldiarazteko neurriak kentzeko Europako ibilbide-orri erkidea» komunikazioa argitaratu ondoren (2020ko apirilaren 15ean aurkeztu zuten Europako Batzordeko lehendakariak eta Europako Kontseiluko lehendakariak), Europar Batasuneko estatuak jarduera ekonomiko eta sozialei berrekitea ahalbidetuko duten faseak planifikatzen hasi ziren, halako moduz non neurriek ahal zen eta eraginik txikiena izango zuten pertsonen osasunean eta osasun-sistemak ez ziren gainkargatuko, Osasunaren Mundu Erakundearen orientabideak kontuan hartuta.

Testuinguru horretan, eskuragarri dauden adierazle nagusiak, maila nazionalean lortutako esperientzia eta beste herrialde batzuetan izandako jardunbide onenak kontuan hartuta, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Plana onartu zen Ministroen Kontseiluaren 2020ko apirilaren 28ko Erabakiaren bidez. Planaren arabera, geldiarazpen-neurriak modu mailakatuan eta asimetrikoan kenduko dira, autonomia-erkidegoekin koordinatuta, eta datu epidemiologikoen bilakaeraren eta hartutako neurrien eraginaren arabera beharrezkoak diren orientazio-aldaketetara egokitzeko moduan.

Plana Diputatuen Kongresura 2020ko apirilaren 29an bidali zen, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren seigarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoa betetzeko. Planaren helburu nagusia hau da: eguneroko bizitza eta jarduera ekonomikoa pixkanaka

berreskuratzea, funtsezko erreferentziatzat osasun publikoa babestea edukita orain ere, baina epidemiak herritarren osasunerako dakarren arriskua minimizatuz eta Osasun Sistema Nazionalaren gaitasunek gainezka egitea saihestuz.

Plan hori aplikatuz, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaraturako alarma-egoera luzatzen duen maiatzaren 8ko 514/2020 Errege Dekretua onartu zenetik, eta Diputatuen Kongresuak emandako baimenean aurreikusitakoaren arabera, Osasuneko ministroari ahalmena eman zitzaion, bere eskumenen esparruan eta –hala bazegokion– autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiriek proposatuta, lurralde-eremu jakin batean aplikatu beharreko neurrien progresioa erabaki ahal izateko, planean ezarritako adierazle sanitario, epidemiologiko, sozial eta ekonomikoen eta mugikortasun-adierazleen bilakaera ikusita.

Bestalde, aipaturako errege-dekretuaren 4. artikulua honako hau ezarri zuen: «COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiaren ondorioz hartutako neurriak arintzeko prozesuaren barruan, Gobernuak autonomia-erkidego bakoitzarekin batera adostu ahal izango du jarduera-unitateak eta pertsonen zirkulazioari buruzko mugak, geldiarazpen-neurriak eta ondasun, zerbitzu, garraibide eta hornidurak ziurtatzeko neurriak aldatzea, zabaltzea edo murriztea, haiek hobeki egokitzeko osasun-larrialdiak autonomia-erkidego bakoitzean izan duen bilakaerara».

Horren arabera, eta Osasuneko ministroak horri buruz emandako araudia aplikatuz, lurraldeek fasez fase egin dute aurrera, modu asimetriko eta mailakatuan, eta, ondorioz, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan hasieran ezarritako neurriak kendu eta modulatu egin dira orain arte.

Bestalde, maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuak, zeinaren bidez luzatu egin baitzen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaratu zen alarma-egoera, 5. artikuluan hau ezarri zuen: «COVID-19aren pandemiari aurre egiteko hartutako aparteko neurriak arintzeko planean aurreikusitako fase guztiak gainditzen badira –Ministro Kontseiluak 2020ko apirilaren 28ko bileran onartu zen plan hori–, indarrak gabe geratuko dira kasuan kasuko probintzia, uharte edo lurralde-unitateetan alarma-egoera deklaratzearen ondoriozko neurriak».

Gaur egun, lurralde nazional osoak planaren II. fasea iritsi du gutxienez, eta ekainaren 5eko 555/2020 Errege Dekretuak, zeina indarrean baitago, azken aurreikuspen horri eustiaz gain, xedatzen du soilik autonomia-erkidegoko presidentea izango dela deseskalatze-planaren III. faseari dagozkion neurriak hartzeko, ezabatzeko, modulatzeko eta betearazteko eskuordetutako agintaritza eskuduna, bere eskumenak erabiliz, autonomia-erkidego bakoitzerako zehaztutako lurralde-unitatearen eremua gainditzen duten zirkulazio-askatasunarekin lotutako neurrien kasuan izan ezik (martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez, COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zen, eta, ekainaren 5eko 555/2020 Errege Dekretuaren bidez, luzatu egin zen alarma-egoera hori).

Gainera, aurreikusten da autonomia-erkidegoek erabaki ahal izango dutela, irizpide sanitario eta epidemiologikoen arabera, III. fasea gainditzea beren erkidegoko probintzia, uharte edo lurralde-unitateetan, eta, horrenbestez, ondorioz gabe geratzea beren lurraldeetan alarma-egoera deklaratzetik eratorritako neurriak.

Deseskalatze-prozesuaren egoera honetan, eta aurreikuspen horien esparruan, lurralde guztietako neurriak pixkanaka kenduta eta neurriok eraginkortasuna behin betiko galduta amaitu nahi da prozesua, azken luzapen hori indarrean dagoen bitartean, baldin eta, uste izatekoa den bezala, guztiak gainditzen badituzte deseskalatze-prozesuaren fase guztiak.

Horrela, geldiarazpen-neurrien amaierako deseskalatze-prozesua alarma-egoera mantentzearekin uztartu nahi izan da, neurri horiek pixkanaka eta modu koordinatuan kentzeak ez dezan, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planean aurreikusten den bezala, arriskuan jar COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiko egoera hasi zenetik pandemia geldiarazteko ezarritako helburuak lortzea. Horri dagokionez, nabarmendu behar da bosgarren luzapenean erregistraturako egoerak bilakaera ona izan duela.

Osasun-laguntzarako, zaintza epidemiologikorako, kutsatze-iturriak geldiarazteko eta babes kolektiborako gaitasun estrategikoei dagokienez aztertutako adierazle eta parametroak ikusita, pandemia eta transmisio-kateak geldiarazteko aurrerapenak aukera ematen du gaur egun, azken luzapenaren indarraldia amaitu eta deseskalatze-prozesuaren fase guztiak gainditu ondoren, lurralde osoan eraginik gabe gera daitezten alarma-egoeraren deklaraziotik eratorritako neurriak.

Hala ere, pandemia geldiarazteko egungo bilakaerak ez ditu salbuesten botere publikoak «prebentziozko neurrien bidez eta behar diren prestazio eta zerbitzuen bidez osasun publikoa antolatze eta zaintzeko» duten eginbeharretik. Eginbehar hori Espainiako Konstituzioaren 43.2 artikuluan dago ezarrita, artikulua horrek lehenengo apartatua aitortzen duen osasuna babesteko eskubidea bermatzeko.

Horregatik, nahiz eta pandemiaren ondoreak nabarmen kontrolatu diren hartutako geldiarazpen-neurriei esker, gomendagarria da presako prebentzio-, geldiarazpen- eta koordinazio-neurriak hartzea pandemiari aurre egiten eta hura kontrolatzen jarraitzeko behin alarma-egoeraren indarraldia amaitu eta hartatik datozen neurriak bertan behera geratu ondoren. Izan ere, hala komeni da pandemiaren izaerari erreparaturik eta haren bilakaera aurrez ikusi ezin dela ikusirik, eta «ikerketa zientifikoaren egungo egoera» ikusirik, «haren aurrerapenak aldakorak baitira», eta «ziurgabetasuna hain handia izanik» eta Konstituzio Auzitegiak 2020ko apirilaren 30eko autoan aipatzen dituen «parametro juridikoekin neurtzeko hain zaila izanik» birusa kutsatzeko eta zabaltzeko moduei dagokienez (4. oinarri juridikoa).

Horren harira, funtsezkoa da bereiztea, batetik, COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiari aurre egiteko alarma-egoera eta horren luzapenak indarrean egon diren bitartean hartutako geldiarazpen-neurri mugatzaileen iraugipena, eta, bestetik, pandemiak eragindako osasun-krisia bera, zeinak iraun egiten baitu, nabarmen arindurik bada ere gure herrialdean, eta zeina erakunde eta agintari eskudunek ofizialki ez baitute gainditutzat jo ez estatuan ez nazioartean.

Hori dela eta, botere publikoek prebentzio-neurrien bidez osasun publikoa antolatze eta babesteko duten betebeharrak konstituzionalaren ikuspegitik, premiazkoa eta beharrezkoa da prebentzio-neurri horiek hartzea osasun-krisiaren amaiera ofizialki adierazten ez den bitartean. Izan ere, arriskutsua izan daiteke pandemia gelditzeko helburua betetzeko indarrean dauden neurriak automatikoki indargabetzea, beste agerraldi epidemiologiko batzuk eta identifikatu gabeko beste transmisio-kate batzuk izan baitaitezke, pertsonen osotasun fisikorako eta osasunerako bermea arriskuan jartzen dutenak eta eskura dauden osasun-baliabideak berriz ere asistentzia-presio handiaren pean jartzen dituztenak.

Helburu hori betetzeko, errege lege-dekretu honek kautela- eta babes-betebehar orokor bat ezartzen du, herritar guztiengan prebentzio-jokabideak finkatzeko, eta presako prebentzio-, geldiarazpen- eta koordinazio-neurri batzuk ezartzen ditu, bizitzeko eta osasuna babesteko eskubidea bermatze aldera COVID-19aren osasun-krisiak irauten duen bitartean, behin alarma-egoeraren eta egoera horren babesean ezarritako geldiarazpen-neurri berezien indarraldia (zirkulazio-askatasuna mugatzen dutenen indarraldia barne) amaitu ondoren.

Horrez gain, osasun-krisi horren zabaltasunak eta larritasunak agerian utzi dituzte zenbait gabezia gure legedi arruntean jasotako erregulazioan, alarma-egoeraren deklarazioa alde batera utzita, izaera horretako edo antzeko osasun-krisiei aurre egiteko. Horregatik, beharrezkotzat jotzen da, era berean, osasun-legedian aldaketa zehatz batzuk egitea, etorkizunean osasun-agintariak krisi-mota horri erantzun eraginkor eta koordinatua emango diotela bermatzeko.

Aldaketa horiek premiazkoak dira, alde batetik, ofizialki pandemiatzat jotako pandemiaren ondoriozko krisi-egoerak gaur egun iraun egiten duelako, eta, bestetik, pandemiaren izaerarengatik eta pandemiaren bilakaera ezin delako aurrez jakin, lehen esandako moduan, eta, horrenbestez, komeni delako indarreko legedian horrelako egoerei aurre egiteko aurreikusitako manuak berehala aldatzea, oro har eta etorkizunean ez ezik gaur egun ere (COVID-19aren transmisio komunitarioan gerta litezkeen berragerpenak

direla eta) egoera horiei aurre egiteko neurriak modu eraginkorragoan eta koordinatuagoan hartzeko asmoz.

Horretarako, aldaketa horiek aukera emango dute osasun-larrialdiei aurre egiteko planak eta estrategiak egin edo abian jartzeko «osasun publikoko jarduketa koordinatuen» figuraren bidez. Era berean, osasun-agintarien arteko koordinazio egokia bermatu nahi da, bai eta osasun-sistema nazionalaren funtzionamendua indartu ere, osasun-krisiak izaten direnerako.

## II

Errege lege-dekretuak zazpi kapitulu, 31 artikulua, sei xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat, zortzi azken xedapen eta eranskin bat ditu.

I. kapituluak, 1.tik 5.era bitarteko artikuluetan, xedapen orokorrak jasotzen ditu, hau da, errege lege-dekretuaren xedea eta aplikazio-eremua, organo eskudunak, bai eta COVID-19aren gaixotasuna hedatzeko arriskurik ez sortzeko hartu behar diren neurriak ere. Era berean, osasun-larrialdiei aurre egiteko jarduketa-planak eta -strategiak ezartzea aurreikusten da, osasun publikoko jarduketa koordinatuen bidez, hurrengo kapituluetan jasotzen diren jarduerak garatzeko.

II. kapituluak 6.etik 16.era bitarteko artikuluek osatzen dute, eta prebentzio- eta higiene-neurri jakin batzuei eustea jasotzen du, hala nola bide publikoan, aire zabaleko espazioetan, erabilera publikoko espazio itxietan edo jendearentzat irekita daudenetan maskarak nahitaez erabiltzea, bai eta garraioetan ere. Era berean, horri dagokionez, maskarak farmazia-bulegoetan modu bateratuan erosteko aukera aurreikusten da; hala errazago eskura ditzakete herritarrek. Neurri horri eta Sendagaien eta osasun-produktuen bermeei eta erabilera arrazionalari buruzko Legearen testu bateginean ezarritako aldaketari esker, neurrigabekoak ez diren baldintza ekonomikoetan eskuratu ahal izango dira maskarak (testu bategin hori uztailaren 24ko 1/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen). Era berean, kapitulu honetan, lan-ingurunean prebentzio-neurri jakin batzuk hartzea aurreikusten da, hala nola lanpostuak edo txandak antolatzea pilaketarik ez izateko, bai eta oinarrizko prebentzio- eta higiene-neurriei eustea ere merkataritza-establezimenduetan, izaera sozialeko egoitza-zentroetan, hotel eta ostatu turistikoetan eta ostalaritza- eta jatetxe-jardueretan, besteak beste. Kirolaren arloan, berriz, Kirol Kontseilu Gorenari eskumena aitortzen zaio neurri horiek lehiaketa profesional jakin batzuetan aplikatzeko, antolatzaileari, Osasun Ministerioari eta autonomia-erkidegoei entzun ondoren, eta egoeren eta kirolariak eta jendea babestu behar diren arabera.

III. kapituluak, 17. eta 18. artikuluetan, zenbait xedapen jasotzen ditu, bidaiarien itsas bidezko, trenbideko eta errepideko garraio-zerbitzuetako plaza-eskaintza eta okupazio-bolumena arautzeko, guztiak ere Estatuaren eskumenekoak. Eserlekua aurrez esleitzen den garraio-bideen operadoreek gutxienez lau astez gorde beharko dute bidaiarien harremanetarako informazioa, osasun publikoko agintarien eskura egon dadin, kontaktuen trazabilitatea izateko. Era berean, Merkataritza Nabigazioko Zuzendaritza Nagusiaren titularrari ahalmena ematen zaio osasun-neurriak agindu ditzan, Osasun Ministerioak proposatuta, Espainiako portuetan sartzeko helburuarekin nazioarteko bidaiak egiten dituzten eta jurisdikziopeko itsasoko uretan nabigatzen duten itsasontziak kontrolatzeko, gurutzatzeak barne.

IV. kapituluak, 19.etik 21.era bitarteko artikuluetan, sendagaiei, osasun-produktuei eta osasuna babesteko beharrezkoak diren produktuei buruzko neurriak jasotzen ditu. Besteak beste, medikamentuei dagokienez, COVID-19aren kudeaketa sanitariorako funtsezkotzat jotzen diren informazioa emateko, hornitzeko eta fabrikatzeko neurriei eusteko beharra azpimarratu behar da. Era berean, osasun publikoa babesteko, osasun-zentro eta -zerbitzuetan hornidura bermatu behar da, eta horrek kontsumoa behar bezain azkar estaltzeko gai den banaketa eskatzen du.

Osasun-produktuei eta biozidei dagokienez, ezinbesteko neurriak gehitzen dira eskuak desinfektatzeko soluzio eta gel hidroalkoholikoak, maskara kirurgikoak, mantal kirurgikoak eta larruzal osasuntsurako antiseptikoak erritmo egokian fabrikatzeko eta eskuragarri jartzeko, eskariaren bolumen handiari erantzuteko moduan.



V. kapituluak, 22.etik 27.era bitarteko artikuluetan, gaixotasuna garaiak detektatzeko eta infekzio-iturriak eta zaintza epidemiologikoa kontrolatzeko neurriak aurreikusten ditu. Horrela, berriaz adierazten da COVID-19a gaixotasuna, zeina SARS-CoV-2 birusaren bidezko infekzioak eragindako gaixotasuna baita, nahitaez eta premiaz deklaratu beharreko gaixotasuna dela. Kalifikazio hori, praktikan, lehendik ere bazuen, SARS (arnas sindrome akutu larria) familiaren azpimota bat izateagatik, eta Zaintza Epidemiologikoko Sare Nazionala sortzeko abenduaren 28ko 2210/1995 Errege Dekretuaren I. 48 eta II.1.B eranskinetan aurreikusita egoteagatik. Halaber, jarraipena ematen zaie informazioa –bai eta epidemiologia- eta osasun-arloan garrantzitsuak diren datuak ere– biltzeko, tratatzeko eta igortzeko betebeharrak batzuei, betiere datu pertsonalak babesteko eskubideak zaindaturik, bai eta Espainian PCR (polimerasaren kateko erreakzioa) bidez egindako proba diagnostikoen emaitzen informazioa biltzeko eta bidaltzeko laborategiekin ezarritako sistemari ere, COVID-19aren kasuak banan-banan zaintzeko sistemaren osagarri gisa.

VI. kapituluak, 28.etik 30.era bitarteko artikuluetan, zenbait neurri xedatzen dira osasun-sistemak giza baliabideen, kontingentzia-planen eta informazio-betebeharren arloan dituen gaitasunak bermatzeko.

VII. kapituluak 31. artikulua osatzen du, eta errege lege-dekretu honetan ezarritako prebentzio-neurriak eta betebeharrak ez betetzeari aplikatu beharreko zehapen-araubidea arautzen du.

Lehenengo xedapen gehigarriak aurreikuspen espezifikoak jasotzen ditu AENAK kudeatutako aireportuetako osasun-kontrolari eta kontrol operatiboari dagokienez; bigarren xedapen gehigarriak, berriz, interes orokorreko portuetako kanpo-osasunaren arloko aurreikuspenak jasotzen ditu.

Hirugarren xedapen gehigarriak Estatuko Administrazio Orokorrari baimena ematen dio 2020. urtean 2.817.500.000 euroren abalaz emateko, gehienez ere, Europako Inbertsioen Banku Taldeak Europako Berme Funtzaren bidez egiten dituen finantzaketa-eragiketarako kostuak eta galerak estaltzeko, COVID-19aren krisiari aurre egiteko; horretarako, hirugarren lehendakariordea eta Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroa gaitzen ditu Europako Inbertsio Bankuarekin dagozkion akordioak sinatzeko. Hala, Gobernuak hartutako neurri nazionalak osatzen ditu.

Laugarren xedapen gehigarriaren bidez, kendu egiten da COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 42. artikuluan ezarritako erregistro-idazpenen iraungitze-epeen etenaldia; horrela, erregistro-idazpenen iraungitze-epeen etenaldiaren ezabaketa administrazio-epeen eta epe judizialen etenaldiaren ezabaketari egokitu ahal izango zaio; horien etenaldia, hurrenez hurren, ekainaren 1ean eta 4an kendu da, maiatzaren 22ko 537/2020 Errege Dekretuaren bidez.

Bosgarren xedapen gehigarriak ezartzen du Indar Armatuen eremuan Defentsako Osasunaren Ikuskaritza Nagusiak hartuko dituela errege lege-dekretu honetako xedapenak betetzeko behar diren neurriak, eta Osasun Ministerioari emango diola horien berri.

Seigarren xedapen gehigarriak, osasun-krisia ikusirik, banaketan informazio- eta komunikazio-teknologiak aplikatzeko aukera ezartzen du, modu koiunturalean, arreta eta jarraipen farmakoterapeutiko optimoa bermatzeko eta pazienteari medikazioa eskuratzeko hala agintzen dutenean osasun publikoko krisi honetan gertatu diren egoeren modukoek edo oso egoera kaltebera duten pertsonen, adinekoen, gaixoen eta mendekoen kasuek.

Autonomia-erkidego guztiek Farmaziako Batzorde Iraunkorren azaldutako esperientziak agerian utzi zuen, aho batez, alarma-egoeran bultzatutako neurri horrek aurrerapena ekarri duela egungo farmazia-prestazioaren kudeaketan eta onuragarria izan dela herritarrentzat, eta beharrezkoa da horri eustea osasun-krisiak irauten duen bitartean, ez bakarrik ospitalean bisita programaturik ez daukaten kolektibo kalteberentzat, baita beren egoera klinikoa, mendekotasuna, kalteberatasuna, arriskua edo zentroarekiko distantzia luzea dela-eta neurri hori beharrezkoa duten pertsonentzat ere.

Xedapen indargabetzaille bakarrik indarrak gabe uzten ditu errege lege-dekretu honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehenengoak Aire Nabigazioari buruzko uztailaren 21eko 48/1960 Legea aldatzen du, seigarren xedapen gehigarri bat gehituz. Xedapen horrek Aire Segurtasunerako Estatu Agentziako zuzendaria gaitzen du, bere eskumenen esparruan eta zenbait baldintzaren pean, araudi nazionalari lotutako abiazio zibilaren eremuetan salbuespen espezifikoko batzuk emateko ustekabeko egoera edo premia operatibo urgentek gertatzen direnean; zehazki, Europar Batasuneko abiazio zibilaren araudian aurreikusitako salbuespen espezifikoen baliokideak direnak emateko araudi horrek arautzen ez dituen eremuetan. Horrela, aukera ematen da alarma-egoeran onartutako titulu, gaikuntza edo baimen horiek mantentzeko hartutako malgutasun-neurriak mantendu eta luzatzeko, eta haiek mailakatzeko normaltasuna berreskuratzen den bitartean, eta suspertze mailakatu baterako beharrezkoak direnak ezartzen uzteko, kolapsoa saiheste aldera eta sektorean normaltasuna berreskuratzea ahalbidetze aldera.

Azken xedapenetako bigarrenak aldatu egiten du Estatuko Osasun Sistemaren Kohesioari eta Kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legea. Lehenik eta behin, 65. artikuluan aurreikusitako «osasun publikoko jarduketa koordinatuen» figura aldatzen da, eta, aldaketa horren bidez, jarduketa-planak eta -estrategiak egin edo aktibatu ahal izatea ahalbidetzen da.

Bigarrenik, osasun publikorako larrialdi-egoeretan autonomia-erkidegoek informazioa emateko betebeharra sartzen da 65 bis artikuluko berrian, osasun-agintarien arteko koordinazio egokia bermatzeko eta Osasun Sistema Nazionalaren funtzionamendua indartzeko.

Azken xedapenetako hirugarrenak Sendagaien eta osasun-produktuen bermeei eta erabilera zentzuzkoari buruzko Legearen testu bateginaren 94.3 artikulua aldatzen du. Aldaketa horrek osatu egiten du alarma-egoera indarrean dagoen bitartean artikuluko horretan bertan 2. apartatuan egindakoa, biztanleriaren osasuna babesteko beharrezkoak diren produktuen prezioa finkatu ahal izateko. Hala, errege lege-dekretu honen bidez, Sendagaien Prezioen Ministerio arteko Batzordeari dagokio prezio hori ezartzeko jarraitu beharreko prozedura onartzea.

Azken xedapenetako laugarrenak aldatu egiten du COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 40. artikulua. Aldaketa horren helburua hau da: 2020ko abenduaren 31ra arte luzatzea, estatutuek aurreikusi ez arren, elkarteen, sozietate zibilen eta merkataritzakoen gobernu- eta administrazio-organoen bilkurak, kooperatiba-sozietateen artezkaritza-kontseiluarenak eta fundazioen patronatuarenak bideokonferentziaz edo telefono-multikonferentziaz egin ahal izateko aukera, eta, era berean, erabakiak idatziz eta bilkurarik gabe hartu ahal izateko aukera, baldin eta lehendakariak hala erabakitzen badu edo organoko bi kidek gutxienez eskatzen badute. Ildo horretan, neurri hori bat dator egoera berriaren konfigurazioarekin, eta gomendagarria da trafiko juridiko eta sozial arruntera igarotzearekin batera ahalik eta arreta-neurri handienak hartzea: besteak beste, espazio txikietan pertsona askoren bilerak eta pilaketak saihestea; esate baterako, pertsona juridikoen gobernu- eta administrazio-organoen bilkuretan.

Halaber, indarrak gabe uzten da martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren 42. artikulua, erregistro-idazpenen iraugitze-epeak eteteari buruzkoa, errege lege-dekretu honen laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin bat etorritik.

Azken xedapenetako bosgarrenak aldatu egiten du COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 36. artikulua, zeina kontsumitzaile eta erabiltzaileek kontratu jakin batzuk zigorrik gabe suntsiarazteko duten eskubideari buruzkoa baita, eta, aldaketa haren bidez, 36.1 artikulua aplikatu nahi zaie behin martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez dekretatutako alarma-egoerak indarrean egoteari utzi dionean administrazioek deseskalada-faseetan edo normaltasun berrian ezarritako neurrien ondorioz beharbada bete ezin izango diren kontratuei ere. Halaber, martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretua onartu ondoren, Europako Batzordeak, 2020ko maiatzaren 13an, 2020/648 (EB) Gomendioa eman zuen, COVID-19aren pandemiarengatik bertan behera utzitako bidaia konbinatuen eta garraio-zerbitzuen dirua itzultzeko alternatiba gisa

bidaiariei eskainitako bonuei buruzkoa; horrenbestez, aipatutako errege lege-dekretu horren 36. artikulua 4. apartatua gomendio horren edukira egokitu beharra dago. Horretarako, artikulua hori bi zentzutan aldatzen da: alde batetik, bonuak jaulkitzeko aukera bidaiariak hura alde aurretik borondatez onartzearen pean jartzen da; eta, bestetik, hamalau eguneko epe automatikoa ezartzen da bonuaren zenbatekoa balio-epea amaitzean itzultzeko hura trukatu ez bada.

Era berean, indarrak gabe uzten da martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren 37. artikulua, Normaltasun Berri Baterako Trantsiziorako Planaren II. eta III. faseetan jokoaren arloan ezarritako malgutasun handiagoarekin bat etortzeko.

Azken xedapenetako seigarrenean, errege lege-dekretua emateko Estatuari babesa ematen dioten eskumen-titulua zerrendatzen dira, eta azken xedapenetako zazpigarrenak, berriz, gaitasuna ematen die Osasuneko ministroari eta Garraioko, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako ministroari hura erregelamendu bidez garatzeko, bakoitzak bere eskumenean esparruan.

Azkenik, azken xedapenetako zortzigarrenak errege lege-dekretua indarrean noiz jarriko den zehazten du: errege lege-dekretua *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean; nolahi ere, 2. artikuluan aplikazio-eremuari buruz xedatutakoa bete beharko da.

### III

Errege lege-dekretu honek, alde batetik, ez die eragiten tresna arauemaile honi debekatutako gaiak, eta, bestetik, arau mota hau erabiltzea justifikatzen duen eta ahalbidetzen duen aparteko eta presazko beharrez dagoelako hipotesiari erantzuten dio.

Lehenengo alderdiari dagokionez, Konstituzioaren 86.1 artikulua aipatzen duen bezala, errege lege-dekretuek «ezin eragingo diete, ez Estatuaren funtsezko instituzioen ordenamenduari, ez I. tituluan araututako herritarren eskubide, betebeharrak eta askatasunei, ez autonomia-erkidegoen araubideari, ez hauteskunde-zuzenbide orokorrari». Errege lege-dekretu honetako neurrietako bakarrak ere ez du eraginik izango gai horietan.

Ildo horretan, eta Espainiako Konstituzioaren I. tituluan araututako herritarren eskubide, betebeharrak eta askatasunei eragiteko debekuari dagokionez, Konstituzio Auzitegiaren doktrina oso sendo batek, Konstituzio Auzitegiaren uztailaren 31ko 139/2016 epaiak (6. oinarri juridikoa) laburbiltzen duenak, honako hau adierazten du: «1.a) Espainiako Konstituzioaren 86.1 artikulua eragotzi egiten du lege-dekretuarekin Espainiako Konstituzioaren I. tituluan araututako herritarren eskubideak, betebeharrak eta askatasunak ukitzea, baina auzitegi honek baztertu egin du muga horren interpretazio zabalago bat, «lege-dekretuaren figura hustea ekarriko lukeena, eta hura baliorik gabe uzten duena Konstituzioaren I. tituluan jasotako gaiak buruzko edozein alderdi eragin handiagoarekin edo txikiagoarekin arautzeko»; 2.a) Klausula murriztailea lege-dekretuaren figura ezerezeraz ez murrizteko moduan ulertu behar da; beraz, Konstituzioak debekatzen duena da eskubide, betebeharrak eta askatasun horien araubide orokor bat arautzea edo eskubide horietako batzuen edukiaren edo funtsezko elementuen aurka egitea (Konstituzio Auzitegiaren 111/1983 epaia, abenduaren 2koa, geroagoko beste batzuek berretsia, 8. oinarri juridikoa); 3.a) Auzitegiak ez du soilik aztertu behar lege-erreserbaren printzipioa nola adierazten den gai jakin batean, baizik eta aztertu behar du lege-dekretuak Espainiako Konstituzioaren I. tituluan arautzen den eskubide, betebeharrak edo askatasunen bat «ukitu» duen, eta, horretarako, kontuan hartu beharko du kasu bakoitzean ukitutako eskubide, betebeharrak edo askatasun horren konstituzio-konfigurazioa, bai eta konstituzio-testuan duen kokapen sistematikoa eta kasuan kasuko arauketa zehatzaren izaera eta irismena ere (...).».

Errege lege-dekretu honetan jasotako aurreikuspenek, bestalde, Espainiako Konstituzioaren 43.2 artikulua botere publikoari emandako konstituzio-aginduari erantzuten diote, ez dute erregulatzen I. tituluan jasotako eskubideen araubide orokorra, eta babestu nahi den ondasun publikoarekiko proportzionatutzat jotzen dira. Ildo horretan, Konstituzio Auzitegiak, zenbait epaitan, iritzia eman du Espainiako Konstituzioaren 43. artikuluan



jasotako osasuna babesteko eskubidearen eraginkortasunari buruz; izan ere, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako botere publiko guztien jarduna orientatzeko eta zehazteko printzipio gidaria den aldetik, «Konstituzioaren agindu horiek betetzen direla ziurtatzeko beharrezkoak diren arauak egitera» behartzen du (Konstituzio Auzitegiaren 113/1989 epaia, ekainaren 22koa, 3. oinarri juridikoa), hau da, osasun publikoaren antolamendua eta tutoretza bermatzeko behar diren arauak ezartzera behar diren bitartekoak erabiliz.

Bigarren alderdiari dagokionez, hau da, aparteko eta presako beharizanaren egoerari dagokionez, Konstituzio Auzitegiaren ekainaren 7ko 61/2018 epaiak (4. oinarri juridikoa) eskatzen du, batetik, «Gobernuak tresna hori onartzeko aztertu dituen zioak era esplizituan eta arrazoituan azaltzea», hau da, presazko egoera azaltzea; eta, bestetik, «ezinbesteko lotura egon behar da zehazten den presako egoeraren eta egoera horri erantzuna emateko hartzen den neurriaren artean».

Hala, alde batetik, Konstituzio Auzitegiak dioen bezala, errege lege-dekretua tresna zilegia da Konstituzioaren arabera; izan ere, bidezkoa eta egokia da ezartzen den xedea lortzeko (eta horrek presako legegintza justifikatzen du): presako legegintzaren xedea da laguntza ematea Gobernuaren helburuen barruko egoera jakin batzuetan, aurreikusteko zailak diren arrazoiengatik araudia berehala ematea eskatzen dutenetan, esan nahi baita ohiko bidea erabilita edo legeen izapidetze parlamentarioako presako prozedura erabilita beharko litzatekeena baino epe laburragoan (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 6/1983, otsailaren 4koa, 5. oinarri juridikoa; 11/2002, urtarrilaren 17koa, 4. oinarri juridikoa; 137/2003, uztailaren 3koa, 3. oinarri juridikoa; 368/2007, 10. oinarri juridikoa; 31/2011, martxoaren 17koa, 4. oinarri juridikoa; 137/2011, irailaren 14koa, 6. oinarri juridikoa, eta 100/2012, maiatzaren 8koa, 8. oinarri juridikoa).

Eta hori guztia gertatzen da kasu honetan; izan ere, beharrezkoa da lurralde nazional osoan hainbat neurri eustea alarma-egoeran hartutako neurriak aplikatzerik ez dagoenean gaixotasunaren agerraldi berriak prebenitzeko eta kontrolatzeko; izan ere, epe horretan ezin dira onartu legegintza-prozedura arruntaren bidez, ezta presako bide bat erabiliz ere.

Era berean, arrazoiz aitor daiteke beharrezkoa den lotura badagoela definitutako larrialdi-egoeraren eta errege lege-dekretuaren proiektuaren bidez hura konpontzen laguntzeko hartutako neurri zehatzen artean (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 29/1982 epaia, maiatzaren 31koa, 3. oinarri juridikoa; 182/1997 epaia, urriaren 20koa, 3. oinarri juridikoa, eta 137/2003 epaia, uztailaren 3koa, 4. oinarri juridikoa). Egungo egoeran, oraindik beharrezkoa da pandemiari aurre hartzea, hura heda dadin saihestu eta osasun publikoa babestea eta haren ondorioei aurre egiteko beste neurri batzuk hartzea.

Halaber, errege lege-dekretu honetan jasotako neurriak onartzeko aparteko eta presako beharizana judizio politikoaren edo egokitasun-judizioaren mendean dago, eta horiek Gobernuari dagozkio (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 142/2014, irailaren 11koa, 3 oinarri juridikoa); erabaki horrek, zalantzarik gabe, jarduteko lehentasun politikoak antolatu beharra dakar (Konstituzio Auzitegiaren 2019ko urtarrilaren 30eko epaia). Errege lege-dekretuaren proiektuaren lehentasunak azalpen-zatian eta memorian azaltzen dira. Azaldu diren egokitasun-arrazoien xedea da jasota uztea ezen errege lege-dekretu hau onartzeak ez duela esan nahi, inolaz ere, konstituzio-tresna hori abusuz edo modu arbitrarioan erabili denik (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 61/2018, ekainaren 7koa, 4. oinarri juridikoa; 100/2012, maiatzaren 8koa, 8. oinarri juridikoa; 237/2012, abenduaren 13koa, 4. oinarri juridikoa; 39/2013, otsailaren 14koa, 5. oinarri juridikoa). Ildo horretan, Gobernuari dagokion judizio politikoaren edo egokitasun-judizioaren barruan, egokitasun-arrazoiek modu zabal eta arrazoituan justifikatzen dute arau hau onestea, zeren eta pandemiak izandako eragin larri-larriari berehala heltzen lagunduko duten neurriak onartzeko helburu legitimoari erantzuten baitio arauak (Konstituzio Auzitegiaren 29/1982 epaia, maiatzaren 31koa, 3. oinarri juridikoa; 111/1983 epaia, abenduaren 2koa, 5. oinarri juridikoa; 182/1997 epaia, urriaren 20koa, 3. oinarri juridikoa).

Errege lege-dekretuaren lehen eta bigarren kapituluetan jasotako neurriei dagokienez, osasun-krisiaren egungo testuinguruak eskatzen duen erantzuna emateko, berehala zehaztu behar dira bai hari aurre egiteko administrazioei berariaz dagozkien betebeharrak,

bai gaixotasuna zabaltzeko arriskurik ez sortzeko herritarrek hartu beharreko kautela- eta babes-neurriak ere, halako moduz non gaitasunak indartuko diren eta epidemia geldiarazteko ezinbestekoak diren jokabideak sendotuko diren. Helburua aldi baterako esparru juridiko bat eratzea da, berariaz osasun-krisiari aurre egiteko sortua, eta hura erabat operatibo egotea alarma-egoeraren indarraldia amaitzen denean.

Zehazki, ziurtatu behar da kutsatze-arriskuak une oro prebenitzeko eran garatzen direla COVID-19 gaixotasunaren transmisio komunitarioa gertatzeko arrisku handiena sor dezaketen jarduerak, eta, aldi berean, ezartzen da maskara erabiltzea nahitaezkoa dela osasunerako arriskua nahiko agerikoa den guneetan, herritarren autobabeserako betebeharra zehazteko modu gisa.

Halaber, premia hartu behar dira garraio-zerbitzuak behar bezala ematen direla bermatzeko neurriak, une oro bete ahal izateko kutsatzeko arriskuak saihesteko behar diren jarraibideak eta, bereziki, okupazio-bolumenari eta kontaktuen trazabilitatea ziurtatzeko beharrezkoa den informazioaren kontserbazioari buruzko jarraibideak.

Era berean, osasun-krisiaren egoerak lotura argia dauka honako hauekin: sendagaien, osasun-produktuen eta osasuna babesteko beharrezkoak diren produktuen hornidura egokia ziurtatzeko aurreikuspenekin; administrazioen arteko informazio- eta koordinazio-betebeharrak indartzearekin, COVID-19aren detekzio goiztiarrerako, jarraipenerako eta zaintza epidemiologikorako; eta, azkenik, osasun-sistemen laguntza-gaitasun egokia bermatzeko neurriekin.

Lehenengo xedapen gehigarriari dagokionez, ezohiko eta presazko beharrezana justifikatuta dago, kontuan hartuta ezinbestekoa dela nazioarteko aire-trafikoan segurtasuna eta osasunaren babesa indartzea, Espainiako ekonomiaren funtsezko sektoreak bultzatzeko, hala nola turismo-sektorea eta aire-lineen sektorea, eta beharrezkoa da interes orokorreko aireportuen sarean neurri sanitario eta operatibo berriak lehenbailehen ezartzea.

Errege lege-dekretu honen bigarren xedapen gehigarrian hartutako neurriei dagokionez, COVID-19a geldiarazteko eta hari aurrea hartzeko egungo egoerak justifikatzen du ezohiko eta presazko beharra. Horrela, premiazkoa eta beharrezkoa da neurriak ezartzea nazioarteko bidaiariak interes orokorreko portuetan sartzen direnean osasun-kontrola bermatzeko behar diren baliabideak eskura jartzeko; betiere, horren azken helburua osasun publikoa babestea da.

Errege lege-dekretu honen hirugarren xedapen gehigarrian hartutako neurriei dagokionez, osasun-krisiak ekarritako ondorio ekonomikoek justifikatzen dute ezohiko eta presazko beharra, eta, zehazki, enpresa txiki eta ertainek eta autonomoek –batez ere horiek– finantzaketa ez izateak. Hala, ziurtatu behar da krisialdian enpresak finantzatzen jarraituko dela, likidezia-krisiak kaudimen-krisi bihur ez daitezen. Ildo horretan, Europako Bermeen Funtz Paneuroparra sortzea Europak pandemiaren ondorio ekonomiko berehalakoenei erantzuteko emandako erantzunaren parte da, eta Kontseilu Europarrak eskatu du ekainaren 1erako abian jartzeko. Hori atzeratzeak likidezia-krisiak kaudimen-krisi bihurtzeko arriskua dakarkie finantzaketan murrizketa handiagoak dituzten enpresei, eta horrek arriskuan jar lezake enpresa horien iraupena eta ekonomian eta enpleguan ondorio iraunkorrak eragin.

Laugarren xedapen gehigarriari dagokionez, ezohiko eta presazko beharra honek ekarri du: maiatzaren 20ko 573/2020 Errege Dekretuak martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bigarren, hirugarren eta laugarren xedapen gehigarriak indargabetzeak eta aldi berean epe prozesalen, epe administratiboen eta eskubideen eta akzioen preskripzio- eta iraungipen-epeen etendura kentzeak. Aurrekoa kontuan hartuta, ezinbestekoa da, alde batetik, erregistro-garrantzia duten egintza eta ebazpen judizialak eta administratiboak erregistroetan islatzea, eta, bestetik, eskubide eta akzioen preskripzio- eta iraungitze-epeak bat etortzea beren erregistro-idazpenekin eta epe horiek gaur egun etenda egotea. Beraz, segurtasun juridikoa eta trafiko juridiko eta merkataritzakoa berrezartzeko beharrak, aldi berean, denbora igarotzeagatik ezereztu daitezkeen erregistro-idazpenen epeen iraungitze-epeak kentzea eskatzen du.

Errege lege-dekretu honen azken xedapenetako lehenengoan hartutako neurriei dagokionez, honek justifikatzen du aparteko eta presazko beharrezana: Europar Batasuneko araudiaren aplikaziotik kanpo dauden eremuetan alarma-egoera indarrean egon den bitartean emandako salbuespenei alarma-egoera amaitu ondoren eustea ahalbidetuko duten tresnak gaitzeko premiak; tresna horiek gaituta, izan ere, araudi horretan aurreikusitako modu berean, eskuordetutako agintari eskudunek alarma-egoeran emandako salbuespenei eutsi ahal izango zaie, eta salbuespenok sektorearen benetako egoerara egokitu ahal izango dira, normaltasunera iritsi arte.

Izan ere, gaixotasunaren kutsatzeak geldiarazteko estatuak ezarritako mugikortasun-mugek eta jardueraren murrizketak eragin dute jarduera aeronautikoak egiteko lizentzien titularrek, operadoreek eta gaikuntza edo baimenen titular diren beste subjektu aeronautiko batzuek, araudi nazionalaren mende egonik, araudiak eskatzen dituen baldintzak ezin betetzea (esperientzia berria, hegaldi-orduak, aireko nabigagarritasunaren mantentzea, eta abar), eta, beraz, beharrezkoa da, segurtasun-estandarrei eutsiz, alarma-egoeran titulu, gaikuntza edo baimen horiek mantentzeko onartutako malgutasun-neurriei eustea edo haien iraunaldia luzatzea, eta neurriok mailakatzea normaltasuna berreskuratzen den bitartean; halaber, errekupeazio mailakatu baterako beharrezkoak direnak hartzen utzi behar da (kolapsoa saihestuko duen eta sektorean normaltasuna berreskuratze bidea emango duen errekupeazio mailakatu baterako behar direnak, hain zuzen ere), bai eta ustekabeko egoera larriak edo premia operatibo larriak dauden kasuetan behar direnak ere.

Horri dagokionez, nabarmendu behar da gaikuntza hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 4ko 2018/1139 (EB) Erregelamenduaren 71. artikuluan aurreikusitakoaren baliokidea dela, Europako araudiak estaltzen dituen abiazio zibilaren jarduera-eremuetan.

Errege lege-dekretu honen azken xedapenetako bigarrenean eta hirugarrenean hartutako neurrien ikuspegitik, azken hilabeteetan, eta alarma-egoera deklaratu aurreko astean batez ere, agerian geratu zen osasun-arloko legedi sektorialak ez zuela behar bezain tresna zehatzik herrialdea oraindik murgilduta dagoen krisi sanitarioaren moduko egoerei aurre egiteko. Ildo horretan, epidemiaren ezaugarri orokorrak ikusita, osasun publikoaren arloko koordinazio- eta lankidetzatresnak indartzen dituzten neurri espezifikoak onartu dira. Berezitasun horiek direla eta, berehala eman behar zaio ahalmena Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluari osasun-larrialdietan jarduteko planak eta estrategiak diseinatu eta aktibatu ahal izan ditzan jarduera koordinatuen esparruan, zerikusia duten administrazio guztien parte-hartzearekin.

Era berean, informazio-betebehar berriak ezartzen dira osasun publikorako larrialdiegoerentarako. Osasun-krisiak iraun duen bitartean izandako esperientziak agerian utzi du osasun-agintarien artean informazioa trukitzea ezinbestekoa dela bilakaera epidemiologikoaren eta horren inguruan hartutako prebentzio-, kontrol- eta geldiarazpen-neurrien jarraipena errazteko. Modu horretan bakarrik bermatu ahal izango da osasun-sistema osoaren koordinazio indartua hau bezalako salbuespenezko egoerei erantzun eraginkorrak eman ahal izateko.

Azkenik, ohartarazi behar da errege lege-dekretu honen zati bat egiturazko erreformatzat jo ahal izateak ez duela eragozten, berez, lege-dekretuaren figura erabiltzea. Konstituzio Auzitegiak adierazi duen bezala, konpondu nahi den arazoa ustez egiturazkoa bada ere, baliteke noizbait arazo hori aparteko eta presazko beharrezan bihurtzea eta, beraz, orduan bidezkoa izatea errege lege-dekretua onartzea. Beharrezana ote dagoen erabakitzeke, kasuan kasuko inguruabarrak aztertu beharko dira (Konstituzio Auzitegiaren epaiak: 137/2011, 6. oinarri juridikoa; eta berriz ere: 183/2014, 5. oinarri juridikoa; 47/2015, 5. oinarri juridikoa; 139/2016, 3. oinarri juridikoa).

Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapenetako laugarrenaren bidez egindako aldaketari dagokionez, adierazi behar da neurriaren helburuaren beraren ondorio dela ezohiko eta presazko beharra, eta helburu hori, hain zuzen, urrutze sozialeko arreta-neurriei alarma-egoera amaitzen denetik aurrera eustea da, horiei esker galdiazarazi baita pandemia. Hala, gaur egun ikusten dugu salbuespenezko egoera hori ez dela

desagertuko alarma-egoera amaitzen denean, eta, beraz, kooperatiben ohiko eta ezohiko batzar asko ezin izango direla modu presentzialean egin, estatutuek eskatzen duten bezala, legez ezarritako epeetan. Gauza bera gertatzen da kideen egoitza lurralde berean ez duten artezkaritza-kontseiluei dagokienez. Horregatik, alarma-egoeraren azken luzapena onartu denez eta harekin neurri horien indarraldia amaituko denez, haien iraunaldia 2020. urtea amaitu arte luzatzeko beharra dago, eta ez dago beste aukera arautzailerik edo arautzailea ez denik; izan ere, ezin da erabili Kapital Sozietateen Legearen testuategina aldatzeko legegintza-izapidetze arrunta (testuategin hori uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

Azken xedapenetako bosgarrenak egindako aldaketari dagokionez, ohiz kanpoko eta presazko beharizanaren oinarria badagoenez, beharrezkoa da kontsumitzaileak deseskalatze edo normaltasun berriko faseetan administrazioek ezarritako neurrien ondorioz bete ezin diren kontratuetatik babesten jarraitzea behin martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez ezarritako alarma-egoerak indarrean egoteari uzten dionean. Era berean, neurri hori beharrezkoa da gure ordenamenduan aurreikusitakoa Europako Batzordearen 2020/648 (EB) Gomendiora egokitu ahal izateko. Gomendio hori bidaiariei eskaintako bonuei buruzkoa da, eta aukera ematen du COVID-19aren pandemiaren harira bertan behera utzitako bidaia konbinatuak eta garraio-zerbitzuak itzultzeko.

Arestian azaldutakoa ikusita, errege lege-dekretuaren tresna juridikora jo ahal izateko oinarri gisa Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua eskatzen duen aparteko eta presazko beharizana dago.

#### IV

Errege lege-dekretu hau bat dator Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak eskatzen dituen printzipioekin: premia, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia. Ondore horietarako, dekretuak premiaren eta efikaziaren printzipioak betetzen ditu; izan ere, herritar guztien interesa dago ezartzen diren eta azken xede gisa herritarren osasuna babestea duten neurrien oinarrian, eta errege lege-dekretua da hori lortzeko tresnarik egokiena. Araua bat dator proportzionaltasun-printzipioarekin, aurretik aipatutako helburuak lortzeko ezinbestekoa den erregulazioa jasotzen baitu; izan ere, orain arautzen diren neurriak proportzionatuak dira babestu nahi den ondasun publikorako. Era berean, segurtasun juridikoaren printzipioari egokitzen zaio, eta koherentea da gainerako ordenamendu juridikoarekin, eta, bereziki, lehen adierazi den bezala, errege lege-dekretuaren tresna erabiltzea ahalbidetzen duen konstituzio-esparruarekin. Efizientzia-printzipioari dagokionez, errege lege-dekretu honek ez du ezartzen bere helburuak lortzeko justifikatuta ez dagon administrazio-kargarik.

Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1.16 artikulua babesean eman da; artikulua horrek Estatuari esleitzen dio kanpo-osasunaren, osasunaren oinarrien eta koordinazio orokorraren eta farmazia-produktuei buruzko legediaren gaineko eskumena.

Horretaz gainera, 17. eta 18. artikulua Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua 21. eta 20. arauen babesean eman dira; 21. arauak autonomia-erkidego baten baino gehiagoren lurraldetik igarotzen diren trenbideen zein lehorreko garraioen gaineko eskumen eksklusiboa ematen dio Estatuari, eta 20. arauak, berriz, merkataritza-nabigazioaren gainekoa.

Lehenengo eta bigarren xedapen gehigarriak Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua 16. eta 20. arauen babesean eman dira; artikulua horiek, hurrenez hurren, kanpo-osasunaren eta interes orokorreko aireportuen eta interes orokorreko portuen gaineko eskumena esleitzen diote Estatuari.

Hirugarren xedapen gehigarria Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua 13. eta 14. arauetan xedatutakoaren babesean ematen da; arau horiek jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarrien eta koordinazioaren gaineko eskumena eta ogasun orokorraren zein estatu-zorraren gaineko eskumena esleitzen dizkiote Estatuari, hurrenez hurren.

Laugarren xedapen gehigarria Espainiako Konstituzioaren 149.1.8 artikuluan xedatutakoaren babesean ematen da; Konstituzioko artikuluko horrek erregistro eta tresna publikoak antolatzearen gaineko eskumena esleitzen dio Estatuari.

Horregatik guztiagatik, Espainiako Konstituzioaren 86. artikulua baimenaz baliatuta, Osasuneko ministroak, Kontsumoko eta Gizarte Ongizateko ministroak eta Garraioko, Mugikortasuneko eta Hiri Agendako ministroak proposatuta, eta Ministro Kontseiluak 2020ko ekainaren 9ko bileran eztabaidatu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

## I. KAPITULUA

### Xedapen orokorrak

#### 1. artikulua. *Xedea.*

Errege lege-dekretu honen xedea hau da: COVID-19ak eragindako osasun-krisiari aurre egiteko beharrezkoak diren presako prebentzio-, geldiarazpen- eta koordinazio-neurriak ezartzea, bai eta gaixotasunaren agerraldi gehiago eragozteko ere, probintzia, uharte eta lurralde-unitate batzuek Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren III. fasea gainditze aldera eta, kasua bada, COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren eta haren luzapenen bidez deklaraturako alarma-egoeraren indarraldiari amaiera emate aldera.

#### 2. artikulua. *Aplikazio-eremua.*

1. Errege lege-dekretu honetan ezarritakoa nazioko lurralde osoan aplikatuko da.

2. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, II., III., IV., V., VI. eta VII. kapituluetan eta seigarren xedapen gehigarrian jasotako neurriak Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren III. fasea gainditu duten probintzia, uharte edo lurralde-unitateetan eta alarma-egoeraren neurri guztiak ekainaren 5eko 555/2020 Errege Dekretuaren 5. artikuluan xedatutakoaren arabera ondorioz gabe geratu direnetan aplikatuko dira soilik (errege-dekretu horren bidez, luzatu egiten da martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren bidez deklaraturako alarma-egoera). 15.2 artikuluan xedatutakoa, baina, lurralde nazional osoan aplikatuko da, errege lege-dekretua indarrean jartzen den unetik.

3. Ekainaren 5eko 555/2020 Errege Dekretuak luzatutako alarma-egoeraren luzapena amaitu ondoren, lurralde nazional osoan aplikatuko dira II., III., IV., V., VI. eta VII. kapituluak eta seigarren xedapen gehigarriko neurriak, harik eta Gobernuak, arrazoiak emanaz, eskuragarri dagoen ebidentzia zientifikoaren arabera eta Alerta Sanitarioak eta Larrialdiak Koordinatzeko Zentroak txostena egin ondoren, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren amaiera deklaratu arte.

Osasun-krisiaz aurreko paragrafoan aipaturako amaiera horren aurretik, Gobernuak kontsulta egingo die autonomia-erkidegoei Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluan.

#### 3. artikulua. *Organo eskudunak.*

1. Salbuespen gisa, eta aparteko larritasun edo presako arrazoiak hala eskatzen dutenean, Estatuko Administrazio Orokorrak, bere eskumenen arabera, errege lege-dekretu honetan xedatutakoa betetzen dela ziurtatzeko behar diren neurri guztiak sustatu, koordinatu edo hartuko ditu, autonomia-erkidegoen lankidetzarekin.

2. Estatuko Administrazio Orokorreko, autonomia-erkidegoetako eta toki-entitateetako organo eskudunek izango dituzte, beren eskumenen esparruan, errege lege-dekretu honetan ezarritako neurriak behar bezala betetzen direla zaintzeko, ikuskatzeko eta kontrolatzeko eginkizunak.



4. artikulua. *Kautelaz jokatzeko betebeharra eta babesteko betebeharra.*

Herritar guztiek beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dituzte COVID-19aren gaixotasuna hedatzeko arriskurik ez sortzeko eta beren burua arrisku horietan ez jartzeko, errege lege-dekretu honetan ezarritakoaren arabera. Kautela- eta babes-betebehar hori errege lege-dekretu honetan araututako edozein jardueraren titularrei eskatuko zaie.

5. artikulua. *Osasun-larrialdiei aurre egiteko planak eta estrategiak.*

Osasun Sistema Nazionalaren Kohesioari eta Kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen 65. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, osasun-larrialdiei aurre egiteko jarduketa-planak eta -estrategiak ezarriko dira, osasun publikoko jarduketa koordinatuen bidez, COVID-19aren gaixotasunaren esposiziorako eta transmisio-komunitariorako dauden arrisku-mailak kontuan hartuta, errege lege-dekretu honetan jasotako jarduerak garatzeko.

## II. KAPITULUA

### Prebentzio- eta higiene-neurriak

6. artikulua. *Maskarak nahitaez erabili beharra.*

1. Sei urtetik gorako pertsonak maskarak erabili beharko dituzte honako kasu hauetan:

a) Bide publikoan, aire zabaleko espazioetan eta erabilera publikoko edo jendearentzat irekita dagoen edozein espazio itxitan, baldin eta pertsonen arteko segurtasun-tartea gutxienez 1,5 metrokoa izatea bermatu ezin bada.

b) Aireko, itsasoko edo trenbideko garraiobideetan eta autobusetan, bai eta bidaiarien garraio publiko eta pribatu osagarrietan ere, bederatzi eserleku arteko ibilgailuetan, gidariaren eserlekua barnean dela, baldin eta turismo-ibilgailuetako bidaiariak ez badira etxebizitza berean bizi. Ontzi eta itsasontzietako bidaiarien kasuan, ez da maskarak erabili beharko beren gelaren barruan edo ontziaren bizkarrean edo kanpoko espazioetan daudenean, pertsonen arteko segurtasun-tartea gutxienez 1,5 metrokoa izatea bermatu ahal denean.

2. Aurreko apartatuan jasotako betebeharra ez zaie eskatuko maskara erabiltzeagatik larritu daitekeen arnasteko gaixotasun edo zailtasunen bat duten pertsonen, ez eta desgaitasuna edo mendekotasuna izateagatik maskara kentzeko gai ez direnei eta jokabide-nahasmenduak izateagatik maskara erabiltzerik ez dutenei ere.

Era berean, ezin izango da eskatu aire zabaleko banakako kirola egitean, ez eta ezinbesteko kasuetan edo beharrian-egoeretan ere, edo, jardueren izaeragatik beragatik, maskara erabiltzea bateraezina denean, osasun-agintarien jarraibideen arabera.

3. Banaka paketatuta ez dauden maskara kirurgikoak farmazia-bulegoetan bakarrik saldu ahal izango dira banaka, produktuaren kalitatea zainduko duten higiene-baldintza egokiak bermatuta.

7. artikulua. *Lantokiak.*

1. Lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia eta aplikatu beharreko gainerako lan-araudia betetzeaz gain, jarduera ekonomikoaren titularrak edo, hala badagokio, zentro eta erakundeetako zuzendariak honako hauek egin beharko ditu:

a) Lantokien ezaugarriak eta erabilera-intentsitateari egokitutako aireztapen-, garbiketa- eta desinfekzio-neurriak hartzea, kasu bakoitzean ezartzen diren protokoloen arabera.

b) Langileen eskura ura eta xaboia jartzea, edo gel hidroalkoholikoak edo birusa akabatzekeo desinfektatzaileak, eskuak garbitzeko Osasun Ministerioak baimendu eta erregistratutakoak.

c) Lan-baldintzak egokitzea, lanpostuen eta txanden antolamendua eta leku komunen erabilera barne, langileen artean gutxienez pertsonen arteko 1,5 metroko segurtasun-tartea dagoela bermatzeko. Hori ezinezkoa denean, arriskuaren neurria egokitutako babes-ekipamenduak eman beharko zaizkie langileei.

d) Neurriak hartzea langile, bezero edo erabiltzaile asko lantokietan batera gerta ez daitezkeen jende kopuru handiena aurreikusten den ordu-tarteetan.

e) Lanpostuetara pixkanaka itzultzeko eta telelanaren erabilera sustatzeko neurriak hartzea, lan-jarduerak horretarako aukera ematen duenean.

2. COVID-19arenak izan daitezkeen sintomak dituzten pertsonak edo COVID-19aren diagnostiko baten ondorioz etxean bakartuta daudenean edo COVID-19a duen norbaitekin harreman estua izateagatik berrogeialdian daudenean ez dute lantokira joan beharko.

3. Langileren bat gaixotasunarenak izan daitezkeen sintomak izaten hasten bada, berehala hots egin beharko da autonomia-erkidegoak edo dagokion osasun-zentroak horretarako prestatutako telefonora, eta, hala badagokio, laneko arriskuaren prebentziorako dagokion zerbitzuekin jarri beharko da harremanetan. Berehala, langileak maskara bat jarriko du eta adierazten zaizkion gomendioei jarraituko die, osasun-profesional batek haren egoera medikoa baloratu arte.

#### 8. artikulua. *Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduak.*

Osasun-administrazio eskudunak langileen eta pazienteen ongizatea bermatzeko antolaketa-, prebentzio- eta higiene-neurriak hartzen direla bermatuko du. Era berean, honako hauek bermatuko ditu: behar diren babes-materialak eskura daudela dagozkien tokietan, erabilitako eremuak garbi eta desinfektatuta daudela, hondakinak desagerrarazten direla, eta tresneria eta instalazioak egoki mantentzen direla.

#### 9. artikulua. *Ikastetxeak.*

Hezkuntza-administrazioek ziurtatu beharko dute Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 3. artikuluan jasotako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe publiko eta pribatuetako titularrek bete egiten dituztela berek ikastetxe horietarako ezarritako desinfekzio-, prebentzio- eta egokitze-arauak.

Nolanahi ere, ziurtatu beharko da beharrezkoak diren antolaketa-neurriak hartuko direla pilaketarik ez izateko eta gutxienez 1,5 metroko segurtasun-tartea uzten dela bermatzeko. Segurtasun-tarte hori uztea ezinezkoa denean, behar diren higiene-neurriak hartuko dira kutsatze-arriskurik ez izateko.

#### 10. artikulua. *Gizarte-zerbitzuak*

1. Administrazio eskudunek ziurtatu beharko dute instalazioak desinfektatu eta egokitzeko eta prebentziorako berek ezartzen dituzten arauak betetzen dituztela egoitza-izaerako gizarte-zerbitzuetako zentroyen eta eguneko zentroyen titularrek.

Bereziki, zainduko dute kutsatze-arriskurik inongo momentutan ez hartzeko moduan garatzen dela beren ohiko jarduera.

2. Agintari eskudunek desgaitasunen bat duten pertsonen egoitza-zentroyen, adinekoen egoitza-zentroyen eta genero-indarkeriaren eta emakumeen aurkako beste indarkeria-mota batzuen biktimantzako larrialdi- eta harrera-zentroyen eta tutoretzapeko pisuen koordinazioa bermatu beharko dute, zentro horiek kokatuta dauden autonomia-erkidegoko osasun-sistemako osasun-baliabideekin.

3. Zentroetako titularrek COVID-19rako kontingentzia-planak eduki behar dituzte egoiliarren eta langileen artean gerta daitezkeen kasuak eta haien kontaktuak garaiz identifikatzeko, eta, hala badagokio, dagokion osasun-zerbitzuaren egiturarekin koordinatzeko prozedurak aktibatu behar dituzte.

Zentroetako titularrek antolamendu-, prebentzio- eta higiene-neurri egokiak hartuko dituzte langileei, erabiltzaileei eta bisitariei dagokienez kutsatze-arriskurik ez izateko. Era berean, arriskuari egokitutako babes-materialak eskura jarriko direla bermatuko dute.

Apartatu honetan aipatzen den informazioa eskuragarri egongo da agintaritza publikoak hala eskatzen duenean.

4. Gizarte Zerbitzuen Erreferentziako Katalogoan eta martxoaren 31ko 12/2020 Errege Lege Dekretuaren 3.1 artikuluan jasotako gainerako zerbitzuak emateko, bermatu beharko da higiene-neurri egokiak hartzen direla kutsatzeko arriskurik ez izateko (katalogo hori Gizarte Zerbitzuen eta Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren Lurralde Kontseiluak 2013ko urtarrilaren 16an hartutako Erabakiaren bidez onartu zen, eta 12/2020 Errege Lege Dekretua, berriz, genero-indarkeriaren biktimei babesa eta laguntza emateko premiazko neurriei buruzkoa da).

#### 11. artikulua. *Merkataritza-guneak.*

Administrazio eskudunek ziurtatu beharko dute berek zehazten dituzten edukiera-, desinfekzio-, prebentzio- eta egokitze-arauak betetzen dituztela edozein artikuluren txikizkako edo handizkako salmentako saltokien titularrek.

Nolanahi ere, ziurtatu beharko da beharrezkoak diren antolaketa-neurriak hartuko direla pilaketarik ez izateko eta bezero eta langileek gutxienez 1,5 metroko segurtasun-tartea uzten dutela bermatzeko. Segurtasun-tarte hori uztea ezinezkoa denean, behar diren higiene-neurriak hartuko dira kutsatze-arriskurik ez izateko.

Administrazio eskudunek arreta berezia jarriko diete merkataritza-gune eta -parkeen berezitasunei, bai eta aire zabalean eta bide publikoan jartzen diren merkatuen edo sedentarioa ez den salmenta-erako merkatuen –azoka txikiak deitutakoen– berezitasunei ere.

#### 12. artikulua. *Hotelak eta turismorako ostatuak.*

Administrazio eskudunek bermatu beharko dute berek zehazten dituzten edukiera-, desinfekzio-, prebentzio- eta egokitze-arauak betetzen dituztela hotelen eta antzeko ostatuen, turismo-ostatuen, unibertsitate-egoitzen eta antzeko egoitzen eta egonaldi laburreko bestelako ostatuen, kanpinen, karabana-aparkalekuen eta antzeko beste establezimenduen titularrek.

Bereziki, ziurtatuko da establezimendu horietako eremu komunetan behar diren antolaketa-neurriak hartzen direla pilaketarik ez izateko eta bezeroek eta langileek pertsonen artean gutxienez 1,5 metroko segurtasun-tartea uzten dutela bermatzeko. Segurtasun-tarte hori uztea ezinezkoa denean, behar diren higiene-neurriak hartuko dira kutsatze-arriskurik ez izateko.

#### 13. artikulua. *Ostalaritzako edo sukaldaritzako jarduerak.*

Administrazio eskudunek ziurtatu beharko dute tabernen, jatetxeen eta gainerako ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduen titularrek bete egiten dituztela edukiera, desinfekzio, prebentzio eta egokitze-ari buruz zehazten diren arauak.

Nolanahi ere, ziurtatu beharko da beharrezkoak diren antolaketa-neurriak hartzen direla establezimenduen barruan eta baimendutako terraza-eremuetan pilaketarik ez izateko eta bezero eta langileek gutxienez 1,5 metroko segurtasun-tartea uzten dutela bermatzeko. Segurtasun-tarte hori uztea ezinezkoa denean, behar diren higiene-neurriak hartuko dira kutsatze-arriskurik ez izateko.

#### 14. artikulua. *Kultura-ekipamenduak, jendaurreko ikuskizunak eta aisialdiko beste jarduerak batzuk.*

Administrazio eskudunek ziurtatu beharko dute berek ezarritako edukiera-, desinfekzio-, prebentzio- eta egokitze-arauak betetzen dituztela kultura-ekipamenduen –hala nola museoen, liburutegien, artxiboen eta monumentuen– titularrek, bai eta jendaurreko

ikuskizunetako establezimenduen eta aisialdiko beste jarduera batzuen titularrek edo horien antolatzaileek ere.

Nolanahi ere, ziurtatu beharko da behar diren neurriak hartzen direla pertsonen arteko gutxieneko tartea 1,5 metrokoa dela bermatzeko, bai eta pilaketarik ez izateko behar den kontrola bermatzeko ere. Segurtasun-tarte hori uztea ezinezkoa denean, behar diren higiene-neurriak hartuko dira kutsatze-arriskurik ez izateko.

15. artikulua. *Kirol-jarduera eta -lehiaketetarako instalazioak.*

1. Administrazio eskudunek ziurtatu beharko dute berek ezartzen dituzten edukiera-, desinfekzio-, prebentzio- eta egokitze-arauak betetzen dituztela banakako zein taldeko kirol-jarduerak eta -lehiaketak egiten diren instalazioen titularrek.

Nolanahi ere, ziurtatu beharko da behar diren neurriak hartzen direla pertsonen arteko gutxieneko tartea 1,5 metrokoa dela bermatzeko, bai eta pilaketarik ez izateko behar den kontrola bermatzeko ere. Segurtasun-tarte hori uztea ezinezkoa denean, behar diren higiene-neurriak hartuko dira kutsatze-arriskurik ez izateko.

2. Futbol Profesionaleko Ligaren eta saskibaloiko ACB Ligaren kasuan, Kirol Kontseilu Gorena izango da aurreko apartatuan xedatutakoa aplikatzeko administrazio eskuduna, lehiaketaren antolatzaileari, Osasun Ministerioari eta autonomia-erkidegoei kontsulta egin ondoren. Organo horrek, hartzen dituen erabakietan, lehenik, osasun-inguruabarrak hartuko ditu kontuan, eta kirolariak eta kirol-jardueretara eta -lehiaketetara joaten diren herritarrak babesteko beharra.

16. artikulua. *Beste jarduera-sektore batzuk.*

Administrazio eskudunek bermatu beharko dute berek ezarritako edukiera-, desinfekzio-, prebentzio- eta egokitze-arauak betetzen dituztela aurreko artikuluetan aipatutakoez bestelako sektore batean diharduen beste edozein zentro, toki, establezimendu, lokal edo entitatearen titularrek, edo jarduera horren arduradunek edo antolatzaileek, 5. artikuluan ezarritakoaren arabera COVID-19aren transmisio komunitarioaren arriskua dagoela antzematen denean.

Nolanahi ere, ziurtatu beharko da behar diren neurriak hartzen direla pertsonen arteko gutxieneko tartea 1,5 metrokoa dela bermatzeko, bai eta pilaketarik ez izateko behar den kontrola bermatzeko ere. Segurtasun-tarte hori uztea ezinezkoa denean, behar diren higiene-neurriak hartuko dira kutsatze-arriskurik ez izateko.

### III. KAPITULUA

#### Garraioaren arloko neurriak

17. artikulua. *Bidaiarien garraio publikoa.*

1. Bidaiarien trenbideko eta errepideko garraio publikoko zerbitzuetan, Estatuaren eskumenekoetan, horiek kontratu publiko bati edo zerbitzu publikoko betebeharre lotuta daudenean, operadoreek eskaintzaren mailak eskariaren berreskurapenaren bilakaerara egokitu beharko dituzte, zerbitzua behar bezala ematen dela bermatzeko, eta herritarrei lanera joatea eta oinarrizko zerbitzuetarako bidea errazteko, COVID-19a kutsatzeko arriskua saihesteko adostu daitezkeen osasun-neurriak kontuan hartuz.

Nolanahi ere, pilaketak saihestu beharko dira, eta ibilgailuen eta trenen okupazio-bolumenari buruz organo eskudunek hartutako neurriak bete beharko dira.

2. Lurreko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiaren titularrak zerbitzu horien eskaintza egokitu ahal izango du, behar bezala funtzionatzen dutela bermatzeko, interes orokorrak hala agintzen duenean, aurreko apartatuan xedatutakoa betetzeari utzi gabe betiere.

3. Eserleku-zenbakia aurrez esleitua duen probintziarteko lurreko eta aireko garraioaren operadoreek informazioa bildu beharko dute bidaiari guztiekin harremanetan jarri ahal izateko, eta, bidaiaren ondoren, gutxienez lau astez gorde beharko dituzte

bidaiari-zerrendak. Halaber, zerrenda horiek osasun publikoko agintariei eman beharko dizkiete, kontaktuen trazabilitatearen berri jakiteko eskatzen zaizkienean.

18. artikulua. *Itsas garraioa.*

1. Bidaiarien itsas garraioko eta bidaiarien eta ibilgailu-kargako itsas garraioko linea erregularren zerbitzuetan, kontratu publiko bati edo zerbitzu publikoko betebeharrei lotuta dauden edo ez kontuan hartu gabe, Merkataritza Nabigazioko Zuzendaritza Nagusiaren titularrak zerbitzu horiek emateko mailak modulatu ahal izango ditu, halako moduz non bermatuko baita haiek modu egokian emango direla, COVID-19a kutsatzeko arriskua saihesteko adosten diren osasun-neurriak kontuan hartuta.

Itsas operadoreek agintaritza eskudunen prebentzio- eta kontrol-neurriak beteko dituzte.

2. Eserleku-zenbakia aurrez esleitua duten ontzi eta itsasontzietako itsas garraioko operadoreek bidaiari guztiekin harremanetan jartzeko informazioa bildu beharko dute, eta, bidaia egin ondoren, gutxienez lau astez gorde beharko dituzte zerrendak. Halaber, zerrenda horiek osasun publikoko agintariei eman beharko dizkiete, kontaktuen trazabilitatearen berri jakiteko eskatzen zaizkienean.

3. Merkataritza Nabigazioko Zuzendaritza Nagusiaren titularrari ahalmena ematen zaio behar diren osasun-neurriak agindu ditzan, Osasun Ministerioak proposatuta, bidaiari-ontziak (gurutzaontziak barne) eta errodadura bidezko ontzi-aldaketa egiten duten bidaiari-ontziak kontrolatzeko; zehazki, nazioarteko bidaiak egiten dituzten eta Espainiako portuetan sartzeko asmoz jurisdikziopeko itsasoko uretan nabigatzen duten horiek kontrolatzeko.

#### IV. KAPITULUA

##### **Sendagaien, osasun-produktuei eta osasuna babesteko beharrezkoak diren produktuei buruzko neurriak**

19. artikulua. *Sendagaien arloko neurriak.*

1. COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren kudeaketan funtsezkotzat jotzen diren eta Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziaren Zuzendaritzako titularrak zehazten dituen sendagaien fabrikatzaileek eta sendagai horiek merkaturatzeko baimenen titularrek, beren kabuz diharduten edo kontratu bidezko banaketa-erakundeen bidez diharduten alde batera utzita, honako hauek jakinarazi beharko dizkiete agentzia horri, hark ezarritako moduan: zenbateko stock erabilgarria duten, azken astean zer kopuru zabaldu duten eta zer lote liberatu eta jasotzekoak diren, aurreikusitako datak eta kopuruak barne.

2. Aurreko apartatuan aipatzen diren subjektuek behar diren neurriak ezarri eta protokoloak prestatu beharko dituzte, osasun-zentro eta -zerbitzuak Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziako zuzendariak zehazten dituen sendagaiez eta beren premien arabera hornitzen direla bermatzeko. Era berean, neurri horiek bermatu beharko dute oporraldietan eta asteburuetan behar besteko hornidura izatea.

3. Osasun ministroak 1. apartatuan aipatzen diren sendagaien fabrikazioari lehenetsuna ematea agindu ahal izango du. Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak, era berean, egitekoak diren fabrikazio-eragiketei buruzko informazioa eskatu ahal izango die sendagaien fabrikatzaileei.

20. artikulua. *CE markatarik gabeko osasun-produktu jakin batzuen instalazioen funtzionamendurako eta funtzionamenduan jartzeko alde aurreko lizentziak ematea.*

1. Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak, interesdunak hala eskatuta, 2020ko uztailaren 31 baino lehen, instalazioen funtzionamendurako salbuespenezko eta alde aurreko lizentzia eman ahal izango du, edo lehendik dauden instalazioen funtzionamendurako aurretiazko lizentzia aldi baterako aldatzea onar



dezake, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren erdian maskara kirurgikoak eta mantal kirurgikoak fabrikatzeko, instalazioen baldintza orokorrak, haien kalitate-sistema eta fabrikatutako produktuaren dokumentazioa kasu bakoitzean baloratu ondoren.

2. Osasun-produktuak arautzen dituen urriaren 16ko 1591/2009 Errege Dekretuaren 15. artikuluan xedatutakoa aplikatuz Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak berariaz baimena ematen badu COVID-19ak eragindako osasun-krisialdian maskara kirurgikoak eta mantal kirurgikoak erabiltzeko baina horiek ez badituzte bete ebaluazio-prozedurak halakoetarako errege-dekretu horren 13. artikulua agindu bezala, salbuespen gisa, agentzia horrek ezarri ahal izango du urriaren 16ko 1591/2009 Errege Dekretuaren 4. artikuluan aurreikusitako osasun-bermeetatik zer eska daitekeen, produktuaren arabera eta fabrikatzaileak emandako bermeak kasu bakoitzean baloratu ondoren.

3. Instalazioen funtzionamendurako alde zuzeneko salbuespeneko lizentziagatik (urriaren 16ko 1591/2009 Errege Dekretuaren 15. artikulua aplikatuz CE markaketarik gabeko produktuak erabiltzeagatik edo aurreko apartatuetan aipatzen diren produktuei eskatzen ez zaizkien osasun-bermeak baliatzeagatik) azkenean egotz daitekeen ondare-erantzukizuna Estatuaren Administrazio Orokorrak hartuko du bere gain, aplikatu behar diren Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen xedapenei jarraituz, baldin eta osasun-produktu horiek COVID-19ak eragindako pandemiak erasandakoei arreta eman ahal izateko edo pandemia kontrolatzen laguntzeko entregatu bazaizkio Osasun Ministerioari, eta haiek fabrikatzeko eta martxan jartzeko baimena duen pertsona fisiko edo juridikoak edo prozesu horretan esku hartzen duen beste edozeinek inolako enpresa-onurarik lortzen ez badu. Errege lege-dekretu hau aplikatuz ematen diren baimenek berariaz aipatuko dute artikulua hau, eta bertan aipatzen diren inguruabarrak jasoko dituzte.

21. artikulua. *Bioziden arloko neurriak.*

1. Eranskinean jasotako zehaztapenak betetzen dituen bioetanola erabiltzea baimentzen da, eskuak desinfektatzeko gelak eta soluzio hidroalkoholikoak ekoizteko.

2. Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak baimena eman ahal izango du larruzal osasuntsuarentzako antiseptikoak fabrikatzeko, Substantzia eta Nahaste Kimikoen Europako Agentziak argitaratutako zerrendan agertzen ez diren hornitzaileetatik eskuratutako klorhexidina-diglukonatoa badute ere, baina substantzia aktibo horrek, betiere, Europako Farmakopean ezarritako zehaztapenak bete behar ditu.

## V. KAPITULUA

### **Detekzio goiztiarra, infekzio-iturrien kontrola eta zaintza epidemiologikoa**

22. artikulua. *COVID-19a nahitaez deklaratzeari buruzko neurriak.*

COVID-19a, SARS-CoV-2 birusak eragindako infekzioak eragindako gaixotasuna, nahitaez eta premiaz deklaratu beharreko gaixotasun bat da, Zaintza Epidemiologikoko Sare Nazionala sortzen duen abenduaren 28ko 2210/1995 Errege Dekretuan aurreikusitakoaren ondoretarako.

23. artikulua. *Informazio-betebeharra.*

1. Osasun publikoko agintaritzak eskudunari COVID-19aren jarraipen eta zaintza epidemiologikorako behar diren eta hark eskatzen dituen datu guztiak emateko betebeharra ezartzen da; datuok formatu egokian eta arduraz eman beharko dira, eta, hala badagokio, identifikazio pertsonalerako behar diren datuak barnean direla.

2. Aurreko apartatuan ezarritako betebeharra administrazio publiko guztiei aplikatuko zaie, bai eta horien mendeko edozein zentro, organo edo agentziari eta COVID-19ko kasuen identifikazioan, diagnostikoan, jarraipenean edo maneian eragina duen jardueran duen beste edozein erakunde publiko edo pribaturik ere.

Bereziki, osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimendu guztiei eta gizarte-zerbitzu guztiei aplikatuko zaie, sektore publikokoei zein pribatukoei, bai eta horietan lan egiten duten osasun-profesionalei ere.

#### 24. artikulua. *Detekzioa eta jakinarazpena.*

1. Autonomia-erkidegoetako eta Ceuta eta Melilla hirietako osasun-zerbitzuek bermatuko dute, asistentzia-maila guztietan –eta, bereziki, osasuneko lehen mailako arretan–, COVID-19aren susmagarri diren kasu guztiei proba diagnostiko bat egingo zaiela PCR bidez (Polimerasaren Kateko Erreakzioa) edo diagnostiko molekularreko beste teknika baten bidez, sintomen berri jakiten denetik ahalik eta lasterren, eta hortik eratorritako informazio guztia garaiz eta behar bezala transmitituko dela, osasun-agintaritzak eskudunak ezartzen duenaren arabera.

2. Autonomia-erkidegoetako eta Ceuta eta Melilla hirietako osasun-agintariek kasuei eta agerraldiei buruzko informazioa emango diote Osasun Ministerioari, Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluan onartutako protokoloetan ezarritakoaren arabera.

3. Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluaren barruan onartutako zaintza-protokoloak nahitaez aplikatu beharko dira lurralde nazional osoan, baina autonomia-erkidegoek eta Ceuta eta Melilla hiriek beren egoeretara egokitu ditzakete, adostutako gutxieneko helburuei eutsiz betiere.

Protokoloetan honako hauek jasoko dira: zaintzaren homogeneotasuna bermatzeko beharrezkoak diren definizioak, informazio-iturriak, aldagai epidemiologiko interesgarriak, informazio-zirkuitua, datuak biltzeko modua eta aldizkakotasuna, informazioa finkatzea eta aztertzea.

#### 25. artikulua. *Laborategietako datuen komunikazioa.*

PCR edo beste proba molekular batzuen bidez SARS-CoV-2 detektatzeko proba diagnostikoak egiteko Espainian baimena duten laborategi publiko eta pribatuek egunero bidali beharko dizkiete Osasun Ministerioari eta berak dauden autonomia-erkidegoko osasun-agintaritzari egindako proba guztien datuak, dagokion administrazioak ezarritako informazio-sistemaren bidez.

#### 26. artikulua. *Kontaktuen trazabilitaterako funtsezko informazioa ematea.*

Establezimenduek, garraio bideek edo beste edozein toki, zentro edo entitate publiko edo pribatuk pertsona kaltetu potentzialen identifikazioari buruz eta pertsona haiekin harremanetan jartzeko datuei buruz duten edo eskatzen zaien informazioa eman beharko diete osasun-agintariei, agintariok kontaktuen trazabilitatearen berri jakiteko beharra ikusten badute establezimendu, garraio bide, toki, zentro edo entitate haietan.

#### 27. artikulua. *Datu pertsonalak babestea.*

1. Errege lege-dekretu hau garatu eta aplikatzearen ondorioz erabiliko den informazio pertsonala honako hauetan xedatutakoaren arabera tratatuko da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua –pertsona fisikoen babesa arautzen du horrek, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du–, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, eta Osasunaren apirilaren 25eko 14/1986 Lege Orokorraren 8.1 eta 23. artikulua. Bereziki, errege lege-dekretu honen aplikazio-eremuan sartutako subjektuek lortutako datuei buruzko informazioa interesdunei emateko betebeharrak bat etorriko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 14. artikuluan xedatutakoarekin, haren 5. apartatuan aurreikusitako salbuespenak eta betebeharrak kontuan hartuta.

2. Tratamenduaren helburua COVID-19aren jarraipen eta zaintza epidemiologikoa egitea izango da, larritasun bereziko salbuespenezko egoerak prebenitzeko eta saihesteko,

osasun publikoaren esparru zehatzean funtsezko interes publikoko arrazoiak kontuan hartuta, eta ukitutako pertsonen eta beste pertsona fisiko batzuen bizi-interesak babesteko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan ezarritakoaren babesean. Bildutako datuak helburu horretarako baino ez dira erabiliko.

3. Tratamenduaren erantzuleak autonomia-erkidegoak, Ceuta eta Melilla hiriak eta Osasun Ministerioa izango dira, bakoitza bere eskumenen esparruan, eta arriskuen azterketatik ondorioztatzen diren nahitaezko segurtasun-neurriak aplikatuko direla bermatuko dute, kontuan hartuta tratamenduek datu-kategoria bereziei eragiten dietela eta tratamendu horiek Segurtasun Eskema Nazionala betetzera behartuta dauden administrazio publikoek egingo dituztela.

4. Beste herrialde batzuekiko datu-trukea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua arautuko du, kontuan hartuta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko urriaren 22ko 1082/2013/EB Erabakia, osasunerako mugaz gaindiko mehatxu larriei buruzkoa, eta Nazioarteko Osasun Erregelamendua (2005), Osasunaren 58. Mundu Batzarrean onartua, Genevan, 2005eko maiatzaren 23an.

## VI. KAPITULUA

### Osasun-sistemaren gaitasunak bermatzeko neurriak

#### 28. artikulua. *Giza baliabideak.*

Administrazio eskudunen ardura izango da behar beste profesional sanitario izatea eta unean uneko lehenbaitan arabera profesional horiek berrantolatze gaitasuna izatea bermatzea. Bereziki, gaixotasunaren prebentzioan eta kontrolean, diagnostiko goiztiarrean, kasuen arretan eta zaintza epidemiologikoan parte hartzen duten profesionalen kopuru nahikoa bermatuko dute.

#### 29. artikulua. *COVID-19aren aurkako kontingentzia-planak.*

Autonomia-erkidegoetako osasun-agintariak kontingentzia-planak eduki behar dituzte Osasun Publikoko, lehen mailako arretako eta ospitaleko arretako zerbitzuen artean erantzuteko gaitasuna eta koordinazioa bermatzeko.

Era berean, titulartasun publiko edo pribatuko lehen mailako arretako eta ospitaleko zentroek barne-planak eduki behar dituzte COVID-19arekin lotutako larrialdi-egoeren kudeaketari aurre egiteko. Plan horiek transmisioaren igoera handi eta azkarrei eta horien ondoriozko kasu-igoerari erantzuteko gaitasuna bermatu beharko dute. Horretarako, gaixotasunaren epidemia-fasean zer beharizan izan diren oinarritzat hartuta, aukera edo gaitasuna eduki behar da kasuen igoera azkarrei erantzuteko behar diren baliabideak epe egokian instalatzeko.

Plan horiek normaltasunera itzultzeko berariazko jarduerak ere jaso beharko dituzte.

#### 30. artikulua. *Informazioa emateko betebeharrak.*

Autonomia-erkidegoek laguntza-gaitasunaren egoerari eta giza baliabideen eta baliabide materialen premiei buruzko informazioa igorri beharko diote Osasun Ministerioari, Osasun Ministerioko Osasun Publikoaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusiaren titularrak ezarritako baldintzetan, autonomia-erkidegoei kontsulta egin ondoren.

## VII. KAPITULUA

**Zehapen-araubidea**

31. artikulua. *Arau-hausteak eta zehapenak.*

1. Errege lege-dekretu honetan ezarritako prebentzio-neurriak eta betebeharrak ez betetzea, osasun publikoko arau-hauste administratiboa denean, Osasun Publikoari buruzko urriaren 4ko 33/2011 Lege Orokorraren VI. tituluan aurreikusitako moduan zehatuko da.

Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta toki-entitateetako organo eskudunei dagokie, bakoitzari bere eskumenen esparruan, neurri horiek betetzen direla zaintzea, ikuskatzea eta kontrolatzea, bai eta dagozkien zehapen-prozedurak instruitzea eta ebaztea ere.

2. 6. artikuluan ezartzen den maskarak erabiltzeko betebeharra ez betetzea arau-hauste arintzat joko da urriaren 4ko 33/2011 Legearen 57. artikuluan aurreikusitakoaren ondoretarako, eta ehun eurorainoko isunarekin zehatuko da.

3. 17.2 eta 18.1 artikuluetan aurreikusitako neurriak ez betetzea, garraioaren arloko arau-hauste administratiboa denean, kasuan kasuko lege sektorialetan xedatutakoaren arabera zehatuko da.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Aenak kudeatutako aireportuetako osasun-kontrolak eta kontrol operatiboak.*

1. Aena S.M.E. SAK (aurrerantzean, Aena), interes orokorreko aireportuen sarearen kudeatzaile gisa, Kanpo Osasuneko zerbitzu zentral eta periferikoen esku jarriko ditu aldi baterako giza baliabideak, osasun-baliabideak eta laguntza-baliabideak, berak kudeatutako aireportuetan nazioarteko hegaldietako bidaiarien sarreraren osasun-kontrola bermatzeko, berak eta Osasun Ministerioak elkarrekin ados jarrita xedatzen dituzten baldintzetan.

Horretarako, bi alderdiek, lankidetzaz hasi aurretik, hitzarmen bat formalizatuko dute, honako hauek zehazten dituenak: beharrezkoak diren bitartekoak; zerbitzua egongo den aireportuak; koordinazio-prozedurak, eta alderdien eskubide, betebeharrak eta erantzukizunak. Aenak hitzarmen hori gauzatzeko egiten dituen kontratazioetan, larrialdi-prozedura erabili beharko da.

Nolanahi ere, osasun-kontrolako eginkizun horiek betetzean lortutako osasun-datuak eta haiekin lotutako beste edozein Osasun Ministerioaren titulartasun eskusibokoak izango dira, eta Aenak ezin izango ditu inola ere biltegitatu, eskuratu edo tratatu Osasun Ministerioaren kontura.

2. Aenak eskubidea izango du artikulua honetan aurreikusten den osasun-agintaritzetik lankidetzaren ondorioz eta COVID-19aren pandemia dela-eta hartu beharreko segurtasun- eta higiene-neurri operatiboen ondorioz sortutako kostuak berreskuratzeke.

Ondore horietarako, aireportu-ingurunean osasun-kontrolak egiten eta hartutako segurtasun- eta higiene-neurri operatiboak gauzatzeko laguntzeagatik benetan sortutako kostuak berreskuratzeari buruzko kalkuluan, Aenak jarduera horiek egiteko jasotzen dituen dirulaguntzak edo bestelako laguntza ekonomikoak deskontatuko dira.

Kostu horiek DORA Aireportuak Arautzeko Dokumentuaren esparruan berreskuratuko dira, eta, horregatik, Merkaturaren eta Lehiaren Batzorde Nazionalak aztertu eta gainbegiratu ditu, Hazkundera, Lehiakortasuna eta Efizientzia Sustatzeko Urgentziazko Neurriak onartzen dituen urriaren 15eko 18/2014 Legean jasotako gardentasun- eta kontsulta-prozesuan.

Kostu horiek, ezin badira berreskuratu 2017-2021eko DORAREN esparruan, hurrengo DORA dokumentuetako edozeinetan berreskuratu ahal izango dira, haien aplikazioak sektorean duen eragina minimizatzeke, kostuok behar bezala kapitalizatuta. Azken kasu horretan, honako DORA hauei eskualdatzen zaizkien kostuei ez zaie aplikatuko urriaren 15eko 18/2014 Legearen seigarren xedapen iragankorraren 1., 2.b) eta 3.c) apartatuetan aurreikusitakoa.

Bigarren xedapen gehigarria. *Kanpo-osasuna interes orokorreko portuetan.*

Portu-agintaritzek, interes orokorreko portuen kudeatzaile diren aldetik, Kanpo Osasuneko zerbitzu zentralen eta periferikoen esku jarriko dituzte beharrezkoak diren baliabideak, Estatuko Portuak erakundeak eta Osasun Ministerioak adostasunez erabakitako moduan, nazioarteko bidaiariak interes orokorreko portuetan sartzean balorazio sanitarioa eta epidemiologikoa bermatzeko. Nazioarteko bidaietako bidaiarien osasun-kontrola ez bada ordaintzen COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondoriozko gastuen konpentsazio gisa Europar Batasunetik datozen funtsekin, funtzio horiek betetzeak dakartzan kostuak bidaia-txartelaren tasan gehituko dira.

Portu-agintaritzek larrialdi-prozedura erabili ahal izango dute beharrezkoak diren osasun-baliabideak kontratatuzko, nazioarteko bidaiariak interes orokorreko portuetan sartzean balorazio sanitarioa eta epidemiologikoa bermatzeko.

Nolanahi ere, kontrol-eginkizun horiek betetzean bidaiariei buruz lortutako osasun-datuak Osasun Ministerioaren titulartasun eskusibokoak izango dira ikuskatzen den arloan, eta portu-agintaritzek edo Estatuko Portuak erakundeak ezin izango dituzte inola ere biltegitatu, eskuratu edo tratatu Osasun Ministerioaren kontura.

Hirugarren xedapen gehigarria. *COVID-19aren krisiari erantzuteko Europako Inbertsio Bankuak Europako Bermeen Funtsaren bidez egiten dituen finantzaketa-eragiketarako abalak emateko baimena.*

1. Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 114. artikuluan ezarritakoaren babesean, Estatuaren Administrazio Orokorrari baimena ematen zaio 2020. urtean gehienez 2.817.500.000 euroren abalak emateko COVID-19aren krisiari aurre egiteko asmoz Europako Inbertsioen Bankua Taldeak Europako Bermeen Funtsaren bidez egiten dituen finantzaketa-eragiketarako kostuak eta galerak estaltzeko. Abalak baldintzarik gabekoak, ezeztazezinak eta Europako Inbertsio Bankuaren lehenengo eskaerakoak izango dira, eta uko egingo zaio Kode Zibilaren 1.830. artikuluan ezarritako eskusio-onurari.

2. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroari ahalmena ematen zaio beharrezkoak diren egintzak emateko eta Europako Inbertsioen Bankuarekin abalak emateko baldintzak eta ordainketa-baldintzak ezartzen dituen akordioa edo akordioak sinatzeko. Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko ministroak finantza-merkatuetan ohikoak diren klausulak hitzartu ahal izango ditu, azaroaren 26ko 47/2003 Legearen 116. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, Europako Inbertsioen Bankuarekin akordio bat sinatuz.

3. Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiak baimena dauka abalaren gastuei eta exekuzioei dagozkien ordainketak egiteko, altxortegi-eragiketen bitartez, horretarako propio sortuko diren kontzeptuen kargura.

Ordainketak egin ondoren, Altxorraren eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusiak ekitaldian egindako ordainketak gastuen aurrekontuan aplikatuko ditu. Urte bakoitzeko abenduan egindako ordainketak hurrengo hiru hilabeteetan aplikatuko zaizkio gastuen aurrekontuari.

4. Emandako abalen exekuzioei dagozkien zenbatekoak Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioaren aurrekontu-partida honetatik ordainduko dira: 27.04.9230.351 «Altxorrek emandako abalen arriskuak estaltzea, aurreko ekitaldietako arriskuak barne». Kreditu hori zabalgarria da, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen II. eranskinaren arabera («Kreditu zabalgarriak») Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 54. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, eta Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorraren 59. artikuluan abal horiei buruz xedatutakoa aplikatuko zaio.

5. Europako Inbertsio Bankuak Bermeen Europako Funtsari dagokionez sortutako kostu, gastu edo komisioei dagozkien zenbatekoei 27.04.9230.359 aurrekontu-partidaren bidez («beste finantza-gastu batzuk») aurre egingo zaie.



Laugarren xedapen gehigarria. *Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuari jarraituz etendako erregistro-idazpenak iraungitzeko epeak.*

2020ko ekainaren 10etik aurrerako ondorioekin, amaitu da denbora igaro delako ezereztu daitezkeen erregistro-idazpenen iraungitze-epeen etenaldia, eta data horretan berriro hasiko da zenbatzen.

Bosgarren xedapen gehigarria. *Indar Armatuak.*

Indar Armaturen eremuan, Defentsako Osasunaren Ikuskaritza Nagusiak hartuko ditu errege lege-dekretu honetan aurreikusitako xedapenak betetzeko behar diren neurriak, eta Osasun Ministerioari emango dio horien berri.

Seigarren xedapen gehigarria. *Farmazia-prestazioaren kudeaketa.*

1. Gobernuak COVID-19aren osasun-krisiaren amaiera deklaratzeko duen arte, errege lege-dekretu honen 2.3 artikuluan aurreikusten denarekin bat etorritik, gizarte-laguntzako zentroetako, zentro psikiatrikoetako eta espetxeetako farmazia-zerbitzuei ere egokituko zaie gizakientzako sendagaiak zaindu, kontserbatu eta ematea, Sendagaien eta osasun-produktuen bermeei eta erabilera arrazionalari buruzko Legearen testu bateginaren 3.6 artikuluan aurreikusitako subjektuei ez ezik, beren erakundeetan aplika dezaten (uztailaren 24ko 1/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen testu bategin hori).

2. Era berean, amaiera hori deklaratzeko den unera arte, sendagaiak modalitate ez-presentzialean emateko behar diren neurriak ezarri ahal izango dituzte autonomia-erkidegoetako farmazia-prestazioaren kudeaketako organo edo agintaritzak eskudunek, osasun publikoa babesteko osasun-egoera berezi bat dagoenean, edo pazientearen egoera klinikoak, mendekotasunak, kalteberatasunak, arriskuak edo Sendagaien eta osasun-produktuen bermeei eta erabilera arrazionalari buruzko Legearen testu bateginaren 3.6 artikuluan b) eta c) letretan adierazitako zentroetara dagoen distantzia fisikoak hala eskatzen duenean, eta, hala badagokio, arreta egokia bermatuko dute sendagaiak osasun-zentroetan edo pazientearen etxetik hurbil dauden eta sendagaiak emateko baimenduta dauden osasun-establezimenduetan entregatuz edo haren etxean bertan entregatuz.

Sendagaiak behar diren tokian uztea eta jarraipen farmakoterapeutikoa egitea farmazia-zerbitzu banatzailearen ardura izango da. Ziurtatu beharko da garraioak eta entregak ez dutela inolako eraginik sendagaien eta ez dakartela sendagaiaren kalitatea apaltzea.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Arauk indargabetzea.*

Indargabeturik geratzen dira errege lege-dekretu honetan xedatutakoaren aurkakoak diren maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak.

Azken xedapenetako lehena. *Aire Nabigazioari buruzko uztailaren 21eko 48/1960 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da Aire Nabigazioari buruzko uztailaren 21eko 48/1960 Legea, hari azken xedapenetako seigarrena gehitzeko. Hona hemen:

«Seigarrena.

Aire Segurtasunerako Estatu Agentziako zuzendariari baimena ematen zaio, bere eskumenen esparruan, lizentzien, ziurtagirien, gaikuntzen edo baimenen titularrei edo eskatzaileei ofizioz salbuespen espezifikoak emateko abiazio zibilaren arloan aplikatzekoa den araudia Europar Batasuneko araudiak arautzen ez dituen

eremuetan betetzeko, ustekabeko egoera larriak edo premia operatibo larriak gertatzen direnean eta honako baldintza hauek guztiak betetzen direnean betiere:

- a) Egoera edo behar horiei modu egokian aurre egin ezin izatea aplikatu beharreko baldintzak betez.
- b) Behar izanez gero, segurtasuna bermatzea arintze-neurriak aplikatuz.
- c) Merkatuko baldintzen edozein motatako desitxuratzea arintzea, ahal den neurrian, salbuespena ematearen ondorioz.
- d) Salbuespenaren irismena eta iraupena behar-beharrezkoa denera mugatuta egotea, eta salbuespena diskriminaziorik eragin gabe aplikatzea.

Era berean, salbuespen horiek onartu ahal izango dira, baldin eta aurreko paragrafoan aipatutako baldintza guztiak betetzen badira, interesdunek alde aurretik behar bezala arrazoituta egiten badute eskaera, aurreikusi gabeko premiazko inguruabarrak edo premiazko beharrezko operatiboak zehazten badira eta jarduteko segurtasun-maila baliokidea ezartzea ahalbidetuko duten arintze-neurriak proposatzen baditu eskatzaileak.»

Azken xedapenetako bigarrena. *Estatuko Osasun Sistemaren Kohesioari eta Kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legea aldatzea.*

Aldatu egiten da Estatuko Osasun Sistemaren Kohesioari eta Kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legea. Honela geratuko da:

Bat. Honela geratzen da idatzita 65. artikulua:

«65. artikulua. *Osasun publikoko eta elikagaien segurtasuneko jarduketa koordinatuak.*

1. Osasun Ministerioari dagokio osasun publikoko jarduketa koordinatuen deklarazioa egitea, aurrez Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluak hala erabakita, eta zuzenean eragingo zaien erkidegoei entzun beharko die, premia larriko egoeretan izan ezik; kasu horretan, behar-beharrezkoak diren neurriak hartuko dira bakarrik, eta presaz emango zaie haien berri.

2. Jarduketa koordinatuen deklarazioak bertan sartutako alderdi guztiak behartzen ditu, eta honako kasu hauetakoren batean kokatu beharko dira:

1.a Osasun publikorako arrisku bereziko edo alarmako egoerei erantzutea.

2.a Nazioarteko akordioak betetzea, bai eta Europar Batasunak emandako araudiaren eskakizunetatik eratorritako programak ere, horiek Estatu osoan modu homogeenan bete eta garatu behar direnean.

Jarduera koordinatuak egiteko, mekanismo hauek erabili ahal izango dira, besteak beste:

- a) Tresna teknikoen erabilera komuna.
- b) Osasun Publikoko Laborategien Sarea koordinatzea eta indartzea.
- c) Osasun-arazoak aztertzeke eta horietan esku hartzeke gutxieneko estandarrak zehaztea.
- d) Informazio epidemiologikoko sistemak indartzea, erabakiak hartzeke, bai eta gaixotasunen sustapen, prebentzio eta kontrolerako programak indartzea ere, horien ondorioek eremu autonomikoa gaintzen dutenean.
- e) Osasun-larrialdiei aurre egiteko jarduera-planak eta -estrategiak aktibatzea edo diseinatzea.

3. Elikagaien Segurtasunaren eta Elikaduraren Espainiako Agentziak deklaratu dituen elikagaien segurtasunaren arloko jarduera koordinatuak, uztailaren 5eko 11/2001 Legean ezarritakoaren arabera.»

Bi. 65. bis artikulua gehitzen da. Honela geratzen da idatzita:

«65. bis artikulua. *Osasun publikorako larrialdi-egoeretan Osasun Ministerioari informazioa ematea.*

Autonomia-erkidegoetan osasun publikoaren arloan eskumena duten organoek, osasun publikorako larrialdi-egoeraren bat gertatuz gero, eta lege honen 65. artikuluan ezarritakoa alde batera utzi gabe, berehala eman beharko dizkiote Osasun Ministerioari behar den informazio epidemiologikoa eta gaitasun asistentzialari buruzko informazioa, bai eta informazio horren arduradunen identifikazioari eta beren lurralde esparruko autonomia-erkidegoek eta toki-entitateek hartutako prebentzio-, kontrol- eta geldiarazpen-neurriei buruzkoa ere, betiere Osasun Ministerioak ezarritako moduan. Toki-entitateen kasuan, dagokion autonomia-erkidegoan osasun publikoaren arloan eskumena duen organoak bilduko du informazio hori, eta Osasun Ministerioari helarazi beharko dio.

Nolanahi ere, Osasun Ministerioak premiaz bilduko du Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseilua, egindakoaren berri emateko.»

Azken xedapenetako hirugarrena. *Sendagaien eta Osasun Produktuen Bermeen eta Erabilera Zentzuzkoaren Legearen testu bategina aldatzea, zeina uztailaren 24ko 1/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu baitzen.*

Aldatu egiten da Sendagaien eta Osasun Produktuen Bermeen eta Erabilera Zentzuzkoaren Legearen testu bateginaren 94. artikulua 3. apartatua –testu bategin hori uztailaren 24ko 1/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen–, eta honela idatzita geratzen da:

«3. Gobernuak arautu ahal izango du, araubide orokor objektibo eta garden bati jarraikiz, zer mekanismo aplikatu behar den Espainiako lurraldean prezioak finkatzeko, medikuaren agindurik gabe eman daitezkeen sendagaiei edo herritarren osasuna babesteko ematen diren beste produktu batzuei dagokienez.

Salbuespenezko osasun-egoera bat gertatzen denean, eta Osasun Publikoa babesteko, Sendagaien Prezioak lantzen dituen Ministerioarteko Batzordeak finkatu ahal izango du zein izango den jendaurreko gehieneko salmenta-prezioa aurreko paragrafoan aipatutako sendagai eta produktuen kasuan, albuespenezko egoera horrek irauten duen bitartean. Publikoarentzako gehieneko salmenta-prezioa finkatzeko prozedura batzorde horretan adostuko da.»

Azken xedapenetako laugarrena. *8/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea, martxoaren 17koa, COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurriena.*

Honako aldaketa hauek egiten dira COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko presako eta ezohiko neurrien martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuan:

Bat. Aldatu egiten dira 40. artikulua 1. eta 2. apartatuak, eta honela idatzita geratzen dira:

«1. Nahiz eta estatutuek hala aurreikusi ez, alarma-aldian, eta behin alarma-aldia amaituta, 2020ko abenduaren 31ra arte, bideokonferentzia bidez edo telefono-multikonferentzia bidez egin ahal izango dira elkarteetan, sozietate zibilen eta merkataritzako enbri- eta administrazio-organoen, kooperatiba-sozietateen artezkaritza-kontseiluen eta fundazioen patronatuaren bilkurak, organoko kide guztiek beharrezkoak diren baliabideak badituzte, organoko idazkariak haien nortasuna egiaztatzen badu eta aktan hala adierazten badu; idazkariak akta hori berehala bidaliko du parte hartzen duen bakoitzaren helbide elektronikora. Arau bera aplikatuko zaie batzorde delegatuei eta eratuakotako nahitaezko edo borondatezko

gainerako batzordeei. Bilkura pertsona juridikoaren helbidean egin balitz bezala hartuko da.

Nahiz eta estatutuek hala aurreikusi ez, alarma-aldian eta hura amaitu ondoren, 2020ko abenduaren 31ra arte, elkartekideen edo bazkideen batzarrak edo biltzarrak bidez edo telefono-multikonferentziaz egin ahal izango dira, baldin eta bertaratzeko eskubidea duten pertsona guztiek edo haien ordezkariak beharrezkoak diren baliabideak badituzte, organoko idazkariak haien nortasuna egiaztatzen badu eta aktan hala adierazten badu; idazkariak akta hori berehala bidaliko du helbide elektronikoetara.

2. Estatutuetan aurreikusi ez bada ere, alarma-aldian eta hura amaitu ondoren, 2020ko abenduaren 31ra arte, elkarteen, sozietate zibilen eta merkataritzako enbata- eta administrazio-organoen, kooperatiba-sozietateen artezkaritza-kontseiluaren eta fundazioen patronatuaren erabakiak idatziz eginiko bozketa baten bidez eta bilkurarik gabe hartu ahal izango dira, baldin eta lehendakariak hala erabakitzen badu; erabakiak horrela hartu ahal izateko, gutxienez organoko kideetako bik eskatu beharko dute. Arau bera aplikatuko zaie batzorde delegatuei eta eraturako nahitaezko edo borondatezko gainerako batzordeei. Bilkura egoitza sozialean egin balitz bezala hartuko da. Erabaki horiei guztiei Merkataritza Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 19ko 1784/1996 Errege Dekretuaren 100. artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaie, merkataritza-sozietateak ez izan arren.»

Bi. Indarrak gabe uzten da 42. artikulua.

Azken xedapenetako bosgarrena. *COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretua aldatzea.*

Honako aldaketa hauek egiten dira COVID-19ari aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloan presako neurri osagarriak ezartzen dituen martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuan:

Bat. 36. artikulua 1. eta 4. apartatuak aldatzen dira eta honela geratzen dira:

«1. Agintari eskudunek alarma-egoera indarrean dagoen bitartean edo deseskalatze- edo normaltasun-faseetan hartutako neurrien ondorioz ezinezkoa bada kontsumitzaile eta erabiltzaileek sinatutako kontratuak betetzea, izan ondasunak salerosteko kontratuak, izan zerbitzuak emateko kontratuak, segidako traktukoak barne, kontsumitzaile eta erabiltzaileak kontratua suntsiarazteko eskubidea izango du hamalau eguneko epean, kontratua gauzatzea ezinezkoa denetik zenbatzen hasita, baldin eta kontratua betetzea eragozten duten neurriek indarrean jarraitzen badute. Suntsiarazteko asmoa baietsi ahal izango da soilik, kontratuaren interesen elkarrekikotasuna berrezarriko duen irtenbide bat ezin bada lortu, fede onean oinarrituta, alderdi bakoitzak emandako berrikuspen-proposamenetik edo -proposamenetatik. Berrikuspen-proposamenetan, besteak beste, itzulketaren ordezkotako bonuak edo txartelak eskaini ahal izango dituzte; nolahi ere, kontsumitzaile edo erabiltzaileak erabakiko du onartu ala ez. Ondore horietarako, kontratuaren interesen elkarrekikotasuna berrezartzen duen berrikuspen-proposamenetik ezin dela lortu iritziko zaio, baldin eta hirurogei eguneko epea igaro bada kontsumitzaile edo erabiltzaileak kontratua suntsiarazteko eskaera egin zuenetik, eta aldeek ez badute lortu berrikuspen-proposamenari buruzko akordioak.»

«4. COVID-19aren ondorioz ezeztatu diren bidaiak konbinatutako kontratuen kasuan, antolatzaileak edo, hala badagokio, txikizkariak, alarma-egoeraren eta haren luzapenen indarraldia amaitu eta urtebeteko epean erabiltzeko bonu bat eman ahal izango dio kontsumitzaile edo erabiltzaileari, dagokion itzulketaren zenbateko berekoa. Bonuaren balio-epea igaro eta erabili ez bada, kontsumitzaileak eskatu

ahal izango du egindako edozein ordainketa osorik itzultzeko, eta, beranduenez, hamalau eguneko epean ordaindu beharko da. Edonola ere, aldi baterako ordezeko bonu bat eskaintzeak hura gauzatzea bermatuko duen finantza-babes nahikoa izan beharko du.»

Bi. Indarrik gabe uzten da 37. artikulua.

Azken xedapenetako seigarrena. *Eskumen-titulua.*

1. Errege lege-dekretu hau Espainiako Konstituzioaren 149.1.16 artikulua babesean eman da; artikulua horrek Estatuari esleitzen dio kanpo-osasunaren, osasunaren oinarrien eta koordinazio orokorraren eta farmazia-produktuei buruzko legediaren gaineko eskumena.

2. 17. eta 18. artikulua Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua 21. eta 20. arauen babesean eman dira; 21. arauak autonomia-erkidego baten baino gehiagoren lurraldetik igarotzen diren trenbideen zein lehorreko garraioen gaineko eskumen eksklusiboa esleitzen dio Estatuari, eta 20. arauak, berriz, merkataritza-nabigazioaren gainekoa.

3. Lehenengo eta bigarren xedapen gehigarriak Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua 16. eta 20. arauen babesean eman dira; arau horiek, hurrenez hurren, kanpo-osasunaren eta interes orokorreko aireportuen eta interes orokorreko portuen gaineko eskumena esleitzen diote Estatuari.

4. Hirugarren xedapen gehigarria Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua 13. eta 14. arauetan xedatutakoaren babesean ematen da; arau horiek jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarrien eta koordinazioaren gaineko eskumena eta ogasun orokorraren eta estatu-zorren gaineko eskumena esleitzen dizkiote Estatuari, hurrenez hurren.

5. Laugarren xedapen gehigarria Espainiako Konstituzioaren 149.1.8 artikuluan xedatutakoaren babesean ematen da; Konstituzioaren artikulua horrek erregistro eta tresna publikoak antolatzearen gaineko eskumena esleitzen dio Estatuari.

Azken xedapenetako zazpigarrena. *Arauk emateko gaikuntza.*

Gobernuari, Ogasuneko ministroari eta Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako ministroari baimena ematen zaie, beren eskumenen esparruan, errege lege-dekretu honetan xedatutakoa garatzeko eta betearazteko beharrezkoak diren xedapenak emateko.

Azken xedapenetako zortzigarrena. *Indarrean jartzea.*

Errege lege-dekretu hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, 2. artikuluan aplikazio-eremuari buruz xedatutakoa ezertan kendu gabe.

Madriren, 2020ko ekainaren 9an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,  
PEDRO SÁNCHEZ PÉREZ-CASTEJÓN



## ERANSKINA

### **Bioetanolaren zehaztapenak, eskuak desinfektatzeko soluzio eta gel hidroalkoholikoetan erabiltzeko**

Bioetanolak, eskuak desinfektatzeko soluzio eta gel hidroalkoholikoetan erabiltzeko, zehaztapen hauek bete beharko ditu:

- Metanola < 200 ppm (V/V).
- Azetaldehidoa < 50 ppm (V/V).
- Bentzenoa < 2 ppm (V/V).
- Beste ezpurutasun batzuk, guztira\* < 3000 ppm.

\* Baimen-eskaerarekin batera, ziurtagiri bat aurkeztuko da, bioetanolean dauden ezpurutasunei buruzkoa, zehaztapena justifikatzen duena. Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziak ebaluatuko du ziurtagiri hori, fabrikazioan bioetanola erabiltzen duten soluzio eta gel hidroalkoholikoak baimendu aurretik.

Gainera, aurrekoa gorabehera, bioetanolaren osagai kartzinogenikoen guztizko nahasketak % 0,1 baino txikiagoa izan behar du.

Desnaturalizazioa azaroaren 20ko EHA/3482/2007 Aginduaren 15. artikuluan ezarritako desnaturalizatzaileekin egin beharko da. EHA/3482/2007 Aginduaren bidez, fabrikazio-zerga bereziekin eta zenbait hidrokarburoren txikizkako salmentaren gaineko zergarekin lotutako zenbait eredu onartzen dira, zenbait kudeaketa-arau batu eta eguneratzen dira eta maiatzaren 11ko EHA/1308/2005 Agindua aldatzen da; maiatzaren 11ko agindu horrek 380 eredia onartzen du (inportazioen parekotzat jotako eragiketetako balio erantsiaren gaineko zergaren aitorten-likidazioari buruzkoa), eredia aurkezteko tokia, modua eta epeak zehazten ditu eta eredia baliabide telematikoen bidez aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura zehazten ditu.

Aurreko paragrafoan ezarritako desnaturalizatzaileen hornikuntzarik ez dagoela ikusiz gero, partzialki desnaturalizatutako alkoholarentzat onartutako desnaturalizatzaile espezifikoeekin egin ahal izango da desnaturalizazioa, uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak onartutako Zerga Berezien Erregelamenduaren 75. artikulua 1. apartatuarekin bat etorritz.